

AURKIBIDEA

DANTZARIAK 67 ~ 2022

AGURRA



3 EDITORIALA
EDITORIAL
ÉDITO

EKINTZAK

GURE TALDEAK



6 EUSKAL HERRIKO
DANTZARI EGUNA
2022

10 PEDRO ROMERO,
PRESIDENTE DE EDB

17 25 URTE
USANSOLOKO
“OINARIN”



GURE TALDEAK



19 ITXAS ALDE
DANTZA TALDEA
~BAKIO~
50 URTE DANTZAN



24 “ROCAMADOR” D.T.
DE SANGUESA



28 EUSKAL HERRIKO
DANTZA AGERKETA
~BASAURI~
50 URTEKO HISTORIA

ELKARRIZKETA

ARTIKULUAK



38 JUAN MARI
BELTRANEKIN
HIZKETAN



42 HERRI MUSIKAREN
TXOKOTIK
SINOUTENEARA,
HOGEI URTEKO BIDEA
(2002~2022)



45 TOMÁS
HERNÁNDEZ
MENDIZABAL

ARTIKULUAK



58 JESÚS LUISA
ESNAOLA,
DANTZA MAISUA


63 TRADIZIOA
BETIEREKO
BERRIKUNTZAN

83 MARIJESIAK,
GABONETAKO
KOPLAK


103 ATERIK ATE
BERRIRO GATOZ,
OHITURA ZAHARRA
PIZTEKO ASMOZ

ARTIKULUAK

ARGITALPENAK

EUSKO
IKUSGAYAK

112 YNCHAUSTI Y SUS
“EUSKO IKUSGAYAK”
DANZAS DE
HACE UN SIGLO



130 ETNOGRAFIAS
EN LOS MUSEOS

136 LIBROS, CDS
Y DVDS



EDITORIALA



Dantzarien 67.ale berri horretan, antzeko antolaketa-egitura eta atal klasikoak ditugu: gure dantza-taldeak eta Pedro Romeo egungo presidentearen aurkezpen-elkarritzeta, Juan Mari Beltran musika-ikertzaile nekaezinari eskainitako elkarritzeta, hainbat artikulu interesgarri (Tomás Hernández Mendizabal, Marijesiak, Las Marzas, etab.), kultura tradizionalaren azterketan ospe handia duten erakunde eta sinaduren eskutik. 1969tik aurrera, "Dantzariak" izenarekin, eta 1978tik aurrera Euskal Dantzarien Biltzarraren barne ikur ikusgarri bihurtu den anagrama bateratzaile batekin.

Aldizkariaren tamaina edo diseinua eta aldizkakotasuna (hiru hilean behin, bi urtean behin edo urtean behin) aldatu ondoren, 67. zenbakira iritsi gara formatu solido eta ezagunean. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietara (IKT) eta euskarri digital arinago batera egokitzeari buruz luze eztabaideatu den arren, nahiz eta horrek ekar ditzakeen baldintzak eta desabantailak kontuan hartu, paperezko formatu fisiokoari eustea erabaki da. Elkarrekintza edo elkar ezagutzeko aldizkaria (elkarritzetako edo iritziak) osatu da, non garrantzi handiko albisteak (ez iragankorrak edo puntualak) eta Kultura Tradizionalaren eta Dantza Tradizionalaren zabalkundea abiapuntu duen. Hau da, bere egituraketa eta gaikako egokitasuna zainduz, informazioa, dibulgazioa eta artikuluen aditu-izaera konbinatzen baititu.

Bestalde, bertatik igaro diren pertsonek eta lantaldeek inprimatutako zigiluak edo indentifikazio-estiloak daude. Une bakoitzeko eragin soziokulturala alde batera utzi gabe, dinamizatzaleen arrastoa beren nahiek, lehentasunek, lan-metodologiek eta ibilbideko

proiektuek edo aldizkarirako estilo jakin bat eratu duten bideek islatu dute. Gaur egun "Dantzariak" aldizkaria dena urtez urte moldatzten saiatzen gara; proiektu ilusionagarri honi pertsona berriak atxikiko zaizkiolakoan, dantza taldeen lankidetza aktiboarekin, elkarritzetatuak izateko harrera atsegina egiten diguten pertsonekin eta artikuluak gure orrialdeetan islatu nahi dituzten pertsona edo erakundeekin jarraipena izango duelakoan. Pozten gara zuek hurrengo zenbakietan edukitzear.

Etorkizunak eskakizun berriak dakartzala jakinik, eta autokonplazentziaren ikuspegia antzuetan erori gabe, pragmatikoki begiratzen dugu eta egiteko dagoen bide zabalari erreparatzen diogu, batez ere kulturaren eta dantzaren munduan aldizkari erreferentzial gisa egin dugun ibilbide nekaezinaren lan aitortu, merezitu eta ezariaren konplexurik gabeko ikusgarritasun, banaketa eta merkaturatzearen antolaketan. Zurea, gurea eta guztiona.

Josu Larrinaga Zugadi
Dantzariak aldizkariaren zuzendarria



EDITORIAL



En este nuevo número 67 de “Dantzariak” mantenemos una similar estructura organizativa y con los apartados clásicos: nuestros grupos de danza y la conversación de presentación del actual presidente Pedro Romeo, la entrevista dedicada al incansable investigador musical Juan Mari Beltrán, diversos e interesantes artículos (Tomás Hernández Mendizabal, Marijesiak, Las Marzas, etc.) de afamadas entidades y reconocidas firmas en el campo del estudio de la cultura tradicional. Desde 1969 bajo la denominación de “Dantzariak” y con un anagrama aglutinador desde 1978 que se ha convertido en el símbolo interno y visible de Euskal Dantzarien Biltzarra.

Después de años de variaciones en la revista de su tamaño o diseño y periodicidad (trimestral, bianual o anual) hemos llegado al número 67 con un formato sólido y reconocible. Aunque se ha debatido ampliamente sobre su adaptación a las Tecnologías de la Información y Comunicación (TIC) y a un soporte digital más ágil para la misma finalmente, aún teniendo en cuenta los condicionantes y desventajas que puede acarear, se ha optado por mantener su formato físico en papel. Forjando su carácter de revista de interacción o conocimiento mutuo (entrevistas u opiniones), noticias de calado (no efímeras o puntuales) y difusión de la Cultura Tradicional y la Danza Tradicional. Es decir, preservando su estructuración e idoneidad temática que combina la información, divulgación y la pulcritud de lo eruditio de sus artículos.

Por otro lado, están los sellos o estilos identificadores imprimidos por las personas y grupos de trabajo que han pasado por la misma. Sin obviar el influjo sociocultural de cada momento, la impronta de sus dinamizadores ha quedado

plasmada por sus deseos, preferencias, metodologías de trabajo y proyectos en la trayectoria o derroteros que han configurado un estilo concreto a la revista. Moldeando, año tras año, lo que hoy es la revista “Dantzariak” y esperando que nuevas personas se adhieran a este ilusionador proyecto, prosiga la colaboración activa de los grupos de danza, las personas que nos reciben amablemente para ser entrevistados y esas personas o entidades que desean plasmar sus artículos en nuestras páginas. Todo un placer y una satisfacción el contar con vosotr@s en próximos números.

Sabedores que el futuro conlleva nuevas exigencias y sin caer en estériles visiones de autocoplacencia, miramos de modo pragmático y observando el amplio camino que queda por recorrer, sobre todo en la organización de la visibilización, distribución y comercialización sin complejos de esta reconocida, merecida e implantada labor de nuestra incansable trayectoria como revista referencial en el mundo de la cultura y la danza. La tuya, la nuestra y la de tod@s.

Josu Larrinaga Zugadi
Director de Dantzariak



ÉDITO



Dans ce nouveau 67eme exemplaire de «Dantzariak», la structure et l'organisation des chapitres sont les mêmes: nos groupes de danse et la présentation du président actuel Pedro Romeo, une interview accordée à l'infatigable chercheur musical Juan Mari Beltran, des articles intéressants (Tomás Hernández Mendizabal, Marijesiak, Las Marzas, etc.) signés par différentes institutions jouissant d'une grande notoriété dans l'étude de la culture traditionnelle. À partir de 1969, sous le nom de «Dantzariak», et depuis 1978 avec une anagramme unificatrice qui est devenu un symbole emblématique de l'Euskal Dantzarien Biltzarra.

Après avoir modifié la taille ou la conception et la périodicité du magazine (tous les trois mois, tous les deux ans ou tous les ans), nous sommes parvenus au numéro 67 sur un format solide et connu. Bien que l'on ait longuement discuté de l'adaptation à la technologie de l'information et de la communication (TIC) et à un support numérique plus léger, bien que les conditions et les inconvénients qu'elle peut présenter soient pris en compte, il a été décidé de maintenir le format physique sur papier. Revue d'entraide ou de connaissance mutuelle (entretiens ou avis), de nouvelles importantes (non transitoires ou ponctuelles) et de diffusion de la Culture Traditionnelle et de la danse Traditionnelle. En veillant à sa structuration et à sa pertinence, il combine informations, diffusion de celles-ci et clarté du savoir des articles.

D'autre part, y existent les marques et les styles bien identifiés de personnes et d'entreprises qui y ont travaillé. Sans exclure l'influence socioculturelle de chaque instant, le chemin développé a été le reflet de leurs désirs, de leurs

priorités, de leurs méthodologies de travail et de leurs parcours de projets qui ont ainsi formé les voies d'un style pour la revue. En réactualisant la revue d'année en année et en espérant que de nouvelles personnes s'atteleront à ce beau projet, poursuivez cette collaboration active des groupes de danse, des personnes qui nous accueillent chaleureusement pour être interviewées ainsi que la lecture des articles écrits par toutes personnes intéressée par leur publication dans notre revue. Nous serions heureux de vous lire dans nos prochains numéros.

Sachant que l'avenir porte de nouvelles exigences, et sans sombrer dans des considérations stériles d'autosuffisance, nous regardons pragmatiquement et observons le vaste chemin qu'il y a à faire, notamment dans la visibilité, la distribution et la commercialisation de notre revue pour que ce travail soit reconnu et mérite une place de référence dans le monde de la culture et de la danse. La tienne, la nôtre et celle de tout.e.s.

Josu Larrinaga Zugadi
Directeur de Dantzariak

EUSKAL HERRIKO DANTZARI EGUNA 2022

~DONIBANE GARAZI~

- Egilea: "Dantzariak" aldizkariaren taldea -

2022ko Euskal Herriko Dantzari Egunaren data eta lekua jakin zen unetik bertatik eta ekitaldiaren eguna heldu bitartean, etengabekoak izan ziren hura antolatzeko eta koordinatzeko egindako bilerak eta joan-etorriak. Zenbat telefono-dei eta posta-elektroniko! Zenbat baimen- eta kontaktu-eskaera! Ez dira gutxi izan, ezta ere, dantza taldeei nahiz komunikabideei bideratutako informazioak, egun seinalatu hau jartzeko eginahaletan, Euskal Dantzarien Biltzarra osatzen duten lurrarde bakoitzeko federazioen eta tokian tokiko elkarteen egutegiak aintzat hartuz.

EDBren web gunea gainezka egon zen; izan ere, bertan ematen zen egun osoko ekitaldien berri, dantza taldeen izen-ematearen nondik norakoak eta ekitaldiaren antolaketarako azalpenak (autobusen harrera, aparkalekuak, desfilearen hurrenkeria, lurrarde bakoitzaren saioak non izango ziren, afaria eta ostatu hartzekolekuak...). Oraindik ere ikusgai daude, Euskal Herriko hainbat eta hainbat elkarteren ordezkariden "Euskal Dantzarien Biltzarra"ren web gune horretan, egitarauaren nondik norakoak:

<https://dantzagune.eus/ehde-2022-programa/>

Urriaren 1ean, egun eguzkitsu zoragarria lagun, goizeko hamaiketan hasi zen, Donibane Garazin, aurreneko ekitaldia: folklore azoka ireki zen ordu horretan, eta zabalik egon zen gaueko zortziak arte; dantza tradizionalaren inguruko produktuak erakutsi zituzten bertan, hainbat salmenta-postutan. Eguerdian, Otsagiko dantzariak aritu ziren dantzan haien herriko dantzak eskainiz, jendearen gozagarri.



Euskal Herriko Dantzari Eguna-2022: Donibane Garazin. Kartela

15:30ak aldera hasi zen Euskal Herriko bazter guztiak etorritako dantzarien harrera; hori gutxi balitz, aipatzeko modukoa da Atlantikoaz bestaldetik ere konektatu zirela dantza batzuk, "streaming" bidez. Arratsaldeko bostetarako zegoen iragarrita edizio honetan bertaratu ziren ehunka dantzarien topaketa eta desfilea; halaxe egin zen. Bi ordu pasako etenik gabeko ikuskizunean, dantzariekin, alarde printzipalerako aukeratutako espazioan, hango eta hemengo dantzak eskaini zituzten tentuz landutako programaren arabera. Ekitaldiaren aurkezpen lane-



Euritako arrosapean Garaztarrak. Josemari Oiarzabal



tan Xabier Mendizabal aritu zen; aurrez, Pierre Latasak (IDBren presidenteak) eta Pedro Romeok (EDBren presidenteak) aurkezpen labur bana egin zuten.

Dantzari guztiak bateratzeko ahalmena duen “Agintariena” dantza izan zen saioari hasiera eman ziona. Anfitrioi lanak egin zituen lurraldoak izan ziren hurrengo dantzak (Makilariena, Euskaldunak, Sorgiñak, Gabota eta Xibandiarak); Gasteizko “Zortziko” dantzak Araba ordezkatu zuen; Bizkaia ordezkatzeko “Dantzari Dantza”ren zati batzuk eta “Gorulariak” izan ziren aukeratuak; Lapurdi ere han zen, “Ahurtiko Makil dantza eta Makil ttipia”, Fandangoa eta “Marmutx” dantzein; Gipuzkoaren izenean, “Brokel dantza”ren baitako elementu koreografiko batzuk eta “Ormatxulo” Soinu Zaharra dantzatu zituzten; Zuberoaren ordezkari “Barrikadak” eta “Godalet dantza” izan ziren; Nafarroak Lesakako dantza erritual eta sozialak erakutsi zituen. Ameriketatik etorritako taldeen lagin bat ere izan zen eta, bukatzeko, “Larrain dantza” jendetstu batean elkartu ziren dantzariak.

Herrialde bakoitzetik zer talde elkartu ziren ere komeni da esatea: Arabatik bost talde agertu ziren (Adurtza, Eguzkilore, Haize Dulantzi, Jare eta Orbelal Alai), Bizkaitik hamahiru (Alkartasuna,



Amaia, Batasuna-Arraizbide, Etorki, Goi-Herri, Gorantzaleak, Itxas Alde, Itxas-Argia, Lora Barri, Mendi-Harana, Talde Batuak, Trabudu eta Zungaitza), Gipuzkoatik bi (Goizaldi eta Ereintza), Iparraldetik bost (Begiraleak, Bithindarrak, Garaztarrak, Primadera eta Zirikolatz), Nafarroatik sei (Agoizko D.T., Ardantzeta, Eluntze, Oberena, Otsagabia eta Txori Zuri) eta diasporaren ordezkari moduan Argentinako talde bat (Beti Aurrera) eta Uruguaiako beste bat (Eusko Indarra) izan ziren, nahiz eta hauen saioa ezin izan zen zuzenean emititu argitasun handiegia zegoelako. Jaialdi osoa ondorengo loturan dago ikusgai:

<https://www.youtube.com/channel/UCiLFFNUQTSloTePtab9uMw>

Pedro Romeok, EDBren presidenteak, "Garaztarrak" taldetik Donostiako "Goizaldi" taldera pasa zuen lekukoa, Donostian izango baita hurrengo edizioa. Gaueko bederatietan, aurrez izena emanda, herri-afaria izan zen eta haren ondoren "Kontrabanda" taldeak girotutako erromeria, gauerdira arte luzatu zena.

"Dantzari Eguna"ren urteroko erritualak bete ditu ospakizun eta itinerantzia helburuak, urte osoko talde lan koordinatua nabarmen agertu da, eta dantza taldeen eta norbanakoentzako arteko

harremanetan sakontzeko ahaleginak egin dira ondoko helburuari begira: euskal dantza tradizionala kontserbatu, praktikatu eta zabaltzea.

Hurrengo urtean berriro ikusiko dugu elkar!



Otsagiko dantzariak. Erika García



Frontoiaren. Estibalitz Iturria

UN RATO CON PEDRO ROMEO... PRESIDENTE DE EDB

- Elkarrizketa eta argazkia: Emilio Xabier Dueñas -

2020.urtetik hona, Euskal Dantzarien Biltzarraren lehendakaritzak elkartea honen zerrenda luzeari gehitu zaion izen berri bat ekarri du. Izan ere, Pedro Romeo Lizarraga iruindarra, lehen presidente nafarrada (bazen garaia).

Euskal dantza “tradicionala” eta berak zuzentzen duen elkartearren gaurko egoeraz jakite aldera, 2022ko martxoaren 24an berarekin solasaldi lasai eta informala izan genuen. Bertan azaldu zigun “mundu txiki honetan” beraren lehen pausuak Oberena dantza taldean hasi zirela; geroago, Burladako Larratz dantza taldean aritu zen, non dantzari izateaz gain, koreografien sortzaile eta zuzendaria izan den; horretaz gain, gaur egunean, ahal duen guztian laguntzen du.

Pedro Romeo Lizarragaren lana, ordea, ez da dantzaren mundura mugatzen, beste zaletasun eta zeregin batzuk baititu; horien artean,

Iruñeko katedralaren turismo-gida ez-ofizialaren kargua betetzea, eta Orreaga Fundazioak kudeatzen duen liburutegiaren arduradun da. Hori guztia egiteaz gain, Pedrok “Mutil Dantzak” irakasten atitzen da, Nafarroako Dantzarien Biltzarraren idazkaria da eta San Lorentzoko Dantzarien partaidea da.

Hala eta guztiz ere, une honetan bere ardura nagusia EDB-ren buru gisa duen erantzukizuna ongi betetzea da. Horrela, alde batetik, Dantzari Egun nazionalean gauzatua den proiektu kontinuista batekin; eta, bestetik, datozen urteetan



kudeatu eta gauzatu beharreko baliabide sorta batekin. Baliabide sorta horien artean aipatzekoak dira, besteak beste, honako hauek: dantza tradizionalean sare sozialen eransketa eta eguneratzea; diasporako dantza taldeak federazioan sartzea; esparru geografiko eta kultural bera duten beste elkartea batzuekin harreman zuzena izatea, e.a. Aldi berean, Eusko Jaurlaritzarekin harreman zuzenagoa eta emankorragoa izaten hasi dena aprobetxatuz, ahal den neurrian, dantza taldeei ekintza-formulak eskaintzea, hala nola irakaskuntza-ikastaroak edo informazio-hitzaldiak.

Pedro Romeo Lizarragaren iritziz, herrialdeko dantza talde guztiek eta jatorri desberdineko elkarteeek federatuta egon beharko lukete, Erakundeen aurrean talde trinko eta indartsu bat osatze aldera. Erakunde horiek federazioaz duten kontzeptua negatiboa da, noski, mundu koreografiko zaletu bezain altruistarekiko utzikeriagatik eta ezkjakintasunagatik; batik bat, mundu koreografiko horrek iraganeko funtsezko elementua gordetzen duela aintzakotzat hartuz.

Bere hitzetan, etorkizunak, zalantzazkoa denak, nola ez, bultzada bat eman beharko lioke federazioak behar duen finkapen horri, federazioa osatzen duten elkarreko dantza taldeen egitura horretan uneoro bermatua, horren aurkako akatsik ez egiten saiatuz.



EXD: sabemos, de antemano, el esfuerzo y dedicación que conlleva la presidencia de una asociación y, en este caso, la de EDB no va a ser una excepción, pero, para situarnos en tu figura, vamos a retrotraernos al pasado, tan próximo como lejano en el tiempo y que, recordarás con nostalgia. Por lo cual, la primera pregunta va dirigida a ese momento de tu vida, en el cual decides introducirte en el mundo de la danza y que ha supuesto una larga trayectoria... ¿cómo comenzaste en este mundillo y por qué?:

PR: es curioso, eso lo recuerdo muy bien. Tendría unos catorce años y estaba estudiando en el Instituto Iribide. Un día, esperando en clase al profesor, con dos bolígrafos empecé a golpear encima de la mesa, como si estuviera tocando el tambor; quizás porque le había visto a mi madre anteriormente: ella es de la Ribera y le gusta cantar la Jota. Al verme un compañero que estaba detrás de mí en clase, componente del Oberena, me propuso unirme al grupo, lo cual acepté. Un corto tiempo después esta persona se marchó para fundar Ortzadar.

EXD: además de Oberena, ¿has estado o estás en otros grupos de danza?:

PR: pues como cuatro años estuve en el Oberena. Hubo problemas en la junta y muchos de los que estábamos nos marchamos a Burlada, al Larratz (Dantza Taldea), fundado unos años antes. Desde entonces sigo con ellos, aunque ahora de forma más testimonial, llevando en otro momento la dirección del mismo y creando coreografías como las del ciclo "Campanero". En Burlada, además, también montamos en su momento la "Martingala" para Carnaval. También, desde hace unos seis o

siete años, soy componente de los Danzantes de San Lorenzo.

EXD: como dice, más o menos, aquella famosa frase de una canción, ahora ¿“a qué dedicas tu tiempo libre”?:

PR: el 24 de junio (de este año) cumpliré tres años de jubilado. Tengo ocupado todo el tiempo...

Con la pandemia cerraron todos los sitios (donde practicar la danza), pero entré en el seminario y allí me dejaron un espacio donde enseñar danzas. Cosa que hago los lunes y miércoles por la tarde. También hago lo mismo en Zizur. Mi especialidad son las “Mutil danzas” y de lo que se ha dado en llamar “Euskal danza”. Además, cuando en Larratz me requieren, allí estoy.

Mi especialidad son las “Mutil danzas”

Pero sigo, tengo más... En la Fundación Orreaga soy uno de los que organiza la biblioteca. En la catedral, hago visitas guiadas de hasta cuatro horas, transmitiendo mis conocimientos: los que he adquirido leyendo libros. Mi siguiente paso, en este aspecto, es el de ofrecer visitas guiadas al templo de Eunate. También colaboro con los Amigos de Olentzero. Y, además, soy secretario de Nafarroako Dantzarien Biltzarra (NDB).

EXD: casi nada. Ahora sí que no me extraña que no te sobre tiempo. Dantzariak queda agradecida que hayas podido atender su petición y estés respondiendo a esta entrevista y... al hilo de lo que has contado acerca de NDB, qué labores se están acometiendo en la actualidad:

PR: NDB, que en este momento cuenta con alrededor de cincuenta grupos de danzas, no tiene una cifra nominativa de una institución, como la tiene EDB, por lo que se tiene que presentar a las subvenciones anuales. El problema es que, como mucho, se consigue el 60 % de lo presupuestado y la lucha por llevarlo todo adelante es impresionante... Montamos cursillos de danzas, “topa danzas” o “plaza danza”, actuaciones de grupos y más cosas. Además, se hacen tres “Danzari egunas”: uno de txikis; otro de jóvenes de grupos de danzas; y otro, de veteranos o ex“danzaris”.

EXD: acabas de comentar que uno de los Dantzari eguna es de txikis. ¿Cómo se lleva la gestión y acción de los grupos de danza, en lo que se refiere al mundo infantil, tanto a nivel de Nafarroa, como del resto del país?:

PR: aunque suene duro decirlo, yo nunca he sido muy partidario de los grupos de txikis, porque si bien ha habido siempre un folklore infantil, el danzar no es obligatoriamente de niños. Es de jóvenes o adultos. Hay quien opina que existe un rito iniciático y que el danzante se convierte en adulto a través de la danza.

Existen dificultades que propician un resultado nada positivo. Primero: al enseñar a los niños se corre el peligro, en la mayoría de los casos, de que sea un fracaso. ¿Cuántos niños y niñas se han mantenido en los grupos? Generalmente muy pocos. Segundo: el folklore infantil se ha perdido y eso es lo que no enseñamos. Y tercero... vamos a inventar para ellos y ellas. Que bailen cosas suyas, no de mayores.

EXD: bien Pedro, aquí entraríamos, si no te he entendido mal, en algo parecido a desvirtuar la danza cuando la ejecutan niños y niñas y, por otro, como ejemplo, en las creaciones infantiles de Claude

Iruretagoyena, ¿no?:

PR: por ahí pueden ir los tiros. Eso lo ha hecho Pedro Aramendia en Sangüesa y Larratz de la mano de Benjamín Ipiña y Ana Martínez. Un espectáculo más teatralizado, donde hacían juegos y coreografías sencillas. No como, por ejemplo, un “Chula lai”, donde se dan culadas, más propio de adultos, o con una “Soka danza”, que tiene su sentido en jóvenes o adultos. Ni siquiera me sería válido para defender la cantera, ya que cuando llegan a mayores se sienten hartos de la danza y muchos dejan el grupo.

Otra de las cuestiones a tener en cuenta, son las limitaciones de los profesores o monitores. Antiguamente, quien dirigía un grupo igual duraba diez años y dejaba el testigo al siguiente, el cual tenía un bagaje. Ahora duran tres años y al siguiente le falta experiencia.

EXD: ¿falta de conocimientos por parte del enseñante y, por lo tanto, fallo en la formación?:

PR: sí, sin duda. Es curioso, porque hay gente muy preparada en la enseñanza reglada, como pedagogos y músicos y, en ocasiones, personas que son, o han sido, de grupos de danzas, pero no se logra avanzar. Se enseña en las escuelas, principalmente, como parte de la educación física o música y ha habido intentos de que la danza se incluya en el Currículum, pero la administración responde diciendo que no sabe cómo encajarla.

EXD: en el lado opuesto de la categoría de edad, qué opinas acerca de la enseñanza y práctica de las personas mayores o ancianos/as:

PR: hay grupos de danzas que, en su ámbito, han formado grupos de ex”danzaris”. Ensayan y participan en un “Danzari eguna”. Si han sido antiguamente “danzaris”, tienen la técnica, a menos que los achaques de la edad sean un problema mayor. Otra cosa es que no hayan bailado nunca: la vocación tardía. En este caso, la labor de los organizadores de los cursillos es más importante.

Para que no se me olvide, también voy a comentar que a las “karrika danzas”, “topa danzas” o “danza plaza” asisten mayoritariamente personas mayores. Los jóvenes no se acercan y preguntando en una ocasión, la respuesta fue porque en esos actos no se les aplaude. Esto no me hace olvidar y sí equiparar con lo que sucedía cuando tenía catorce años y entonces se bailaba por militancia, ante una situación sociopolítica que queríamos cambiar. Hoy no se da esa situación, y se entiende la danza más como espectáculo que como manifestación de nuestra entidad como Pueblo.

EXD: hemos hablado de la danza, vamos a llamarla “tradicional” y vasca, de los grupos de danzas y de la situación actual; ahora, vamos a tratar de EDB y la primera pregunta es básica, ¿por qué te presentaste a la presidencia?:

PR: bueno... anteriormente estuve muchos años formando parte del organigrama y, en los últimos años, de secretario. Cuando se marcha Joseba Altube (anterior presidente), da un dato desconocido para muchos de nosotros y es que, hasta ese momento, no había habido en toda la historia de EDB un presidente navarro. Entonces, aunque no me parecía correcto porque no soy euskaldun, tenía la ventaja de estar jubilado y, entonces, con tiempo de sobra, por lo que decidí presentarme. Siempre he sido defensor de EDB y de su filosofía. Pienso que todos los grupos del país deberían estar federados para conseguir un bloque compacto y defendernos ante las instituciones públicas.

EXD: venidos al caso, ¿cuál es tu proyecto?:

PR: pues, en principio tampoco varía tanto del que existía antes de coger yo el testigo. Soy continuista; siendo el acto central el “Danzari eguna” nacional. No hay muchas habas que contar aquí.

Cada delegación de las que conforman la junta, tiene su autonomía absoluta. Eso no quita para que estemos en permanente relación y creando proyectos en común. Eso sí, todo ello gestionado por la persona coordinadora.

No obstante, y gracias al último apoyo económico recibido del Gobierno Vasco, vamos a incidir en tres aspectos claves para nosotros. El primero, la diáspora: hay una ingente cantidad de grupos que desean tener contacto con los de aquí. El segundo es el contacto con otras asociaciones de nuestro ámbito cultural y que se mueven a nivel geográfico idéntico, como son la Asociación de Txistularis y la de Bertsolaris, y con la intención de crear un proyecto común, al que podemos denominar Instituto Vasco del Folklore o, en su caso, Instituto Navarro del Folklore. Y el tercero, las redes sociales, es decir el impulso de las relaciones entre los grupos y la juventud, por medio de una coordinación interna.

EXD: desde que fuiste elegido, con el grave problema sobrevenido que es la pandemia, qué se ha hecho:

PR: juf!... sobrevivir. La verdad es que el cambio de presidencia y de cargos, más que de personas, ha supuesto una alteración muy radical. También el de la persona coordinadora. La anterior valía más que su peso, pero no había dinero ni para pagar media jornada. Ahora disponemos de más, debido a la no celebración del “Danzari eguna” nacional en 2020, aunque esto es realmente negativo, y sobre todo al aumento en la subvención; eso nos da un mayor margen.

Soy continuista; siendo el acto central el “Danzari eguna” nacional.

EXD: pero, teniendo en cuenta el sentido y significado que tiene el Dantzari eguna, lo que se hizo online ese año ¿también se le puede considerar como tal?:

PR: así lo hicimos y no pasó nada.

EXD: volviendo al apartado económico, no me olvido del poco, por no decir nulo, apoyo institucional que has afirmado, existe hacia EDB. ¿A qué se puede deber, teniendo en cuenta también que otras instituciones (locales o territoriales), de una u otra forma también patrocinan, de manera muy desigual, aunque siempre de forma escasa, al mundo de la danza?:

PR: excepto con el Ministerio de Cultura, con quien nunca ha existido relación, me da igual qué administración sea de la que hable, ya que nos sentimos abandonados e ignorados.

Lo nuestro es absolutamente voluntario y altruista. Como los grupos de danzas van a seguir haciendo lo mismo, con o sin apoyo, pues les da igual. Ha existido en toda administración y del color que sea. Cuatro pelas y que siga “pa'lante”. Llega la pandemia y deja más al descubierto eso.

Tenemos un país que está con una muga internacional y con otra división de comunidades. En





total cuatro o cinco administraciones. Sueltan unas migajas y ya está, pero viene la pandemia y el mundo cultural se viene abajo. Se queja este mundo y la protesta más importante es la del mundo cultural, del que se llama profesional, porque viven de ello y necesitan que les ayuden. Bueno, yo no vivo de esto, pero también necesito que me ayuden. La administración nos lo ha dicho claramente: primero vamos a dar a quien viva de esto. A vosotros os vamos a dar para que mantengáis la estructura. Ya, pero ¿entonces no vamos a hacer nada? O sea, la cultura que no produce ganancia, se olvida.

EXD: ¿a quién le produce ganancia?:

PR: a quien la practica. Generalmente son empresas: las que montan el sonido, las que montan los escenarios... Empresas que se llaman de la industria cultural. Gestionan las actuaciones de los demás o el Patrimonio Inmaterial y se llevan una pasta por hacer una o veinte entrevistas. Les pagan por hacer la entrevista, pero a aquella persona de la cual sacó la información y es "danzari" de un pueblo, a esa, no le pagan nada. ¿Por qué?: porque no vive de esto. Yo he puesto este ejemplo en la administración: es como subvencionar a las panaderías y no dar subvención al que siembra el trigo.

En Cultura hay tres sectores... la danza y el folklore tradicional es el

***"Sin danza
tradicional no
tiene sentido
EDB."***

tercero. ¿Quién le ha dado la vuelta a eso? Es una cuestión europea. Si no ayudas a los danzantes de Otsagabia, de Iurreta o a los de Montehermoso, quién va a hacer nada... pueden desaparecer. Se apoya a las consecuencias y se olvida al origen.

EXD: la queja se hace evidente en tus palabras, pero ¿crees que esto no puede, o no va a cambiar?:

PR: hace unos meses, a propuesta de un grupo político, estuvimos en el parlamento vasco, para que conocieran de primera mano nuestra labor. Expusimos nuestra trayectoria y la situación actual. Además, nos hicieron preguntas a las que respondimos gustosamente.

Eso ha dado como resultado, increíblemente, que aumenten la aportación anual. Sigue siendo muy baja, pero puede resultar de impulso para que hagamos muchas cosas, como por ejemplo algo que ya hemos comenzado: ofrecer a todos los grupos la posibilidad de que monten cursillos de danzas, charlas, etc.

EXD: la última pregunta es la clásica del periodismo y de eso que una parte de todo ser humano tiene muy dentro: ser vidente. ¿Cómo ves el futuro de EDB y de la danza tradicional?:

PR: lo uno va unido a lo otro. Sin danza tradicional no tiene sentido EDB. Sabemos que queda mucho por hacer. Si lo hacemos bien, aunque sea una contradicción, quedará más todavía.

Miedo me da de nosotros mismos... A veces no es evolución, sino desastre.

A lo largo de la historia ha habido muchos cambios radicales. Al igual que, muchas de las danzas hoy son consideradas tradicionales, no lo son tanto. Como Iztueta cuando echa pestes de los “danzaris” que llevan pantalones largos. Y hoy, sin pantalón largo, no podríamos bailar. O me salgo del mundo, o voy admitiendo cosas.

Hasta hace bien poco había danzas de hombres y danzas de mujeres, pero el cambio social y cultural ha sido para bien. Otra cosa es la pérdida de sentido en algunas danzas por desconocimiento de su historia.

Tenemos mucho trabajo por delante, pero con ayuda institucional y el esfuerzo de todos nosotros podemos hacer muchas cosas.

La entrevista ha sido grata, pero todo tiene un final: la despedida. Esperemos que el futuro, aunque incierto por muy diferentes causas, internas y externas, nos dé el margen suficiente para valorar lo que se ha realizado hasta ahora y lo que venga sea encauzado en la dirección correcta. 

25 URTE USANSOLOKO “OINARIN”

Zakukada Ilusio eta gogo lepoan hartuta hasi zuen ibilbidea gazte talde txiki batek duela 25 urte. Mende laurdena jada, mende laurdena Usanso-loon Oinarin Dantzari Taldea jaio zenetik. Hasierako gazte haien indarra eta grina abia-puntu, bidezidor estutxo bat-en lehen urratsak zabaldu ziren herrian, eta urteen joan etorri, bidezidor hori bide zabal eta sendo bilakatu da. Loratu dira, bai, 25 udaberri koloretsu eta oparo.

Folklorea da gizarte bat ondoen definitzen duen ekintza kulturala eta dantza tradizionalak, belau-naldiz belaunaldi gure arbasoengandik guganai-no mendeetan zehar gorde diren horiek, horren lekuko bikaina.

Amets zoro honen sortzaile izan ziren gazte ho-riek gure irakasle, kide eta lagun dira gaur egun eta aldi berean gu beraien seme alaben irakasle, kide eta lagun gara, horrela kateak irauten duen bitartean, familia txiki erraldoi bat osatuz. Eta iraungo du, bai, herri oso baten indarrak folklore olatu txiki bat tsunami geldiezin bilakatzen due-lako.

Sortzaileek irakatsitako euskal folklore, hizkuntza eta ondarearekiko maitasunean oinarritutako baloreak transmitituz, Oinarin Dantzari Taldea gure herriko bihotz kultural bi-zientarikoa bilakatu da, hamaika belaunaldi batuz osatutako giza kate sendo bat.



Pandemiak kultura gogor astindu arren, hemen gau-de, 25 urte geroago inoiz baino indartsuago, hasie-rako ilusio eta gogo berdinarekin. Momentu ho-netan, dantzari talde sendo bat daukagu Usan-solo eta inguruko herrietako kidez osatuta. 30 bat heldu eta gure etorkizuneko ibilbide luzearen lekuko diren 50 bat ume.

Dantzariez gain, taldean hainbat musikari ditugu txaranga polit bat osatuz, eta nola girotzen duten herria, ai ama! Jon Maiaren hitzak gogo-ra ekarriz... "Probatu ez duenak ez daki zer den hau!".

Hasierako ardatz eta helburuari jarraiki, hala nola Euskal Herriko kultura gure artera ekarri eta sus-tatzeko grinari, Joaldun talde bat ere utzi digu



ibilbide honek, 14 joaldunez osatutako talde eder bat. Euskal Herriko hainbat eta hainbat txokotan ibiltzen gara dindirriei sua ateratzen, adarraren soinuaren atzetik jo ta fuego kaleak gure arbasoek utzitako soinuez esnatzen.



Mende erdiak ibilbide luzea utzi digu jada, eta aipatzekoak dira herriko ume eta helduentzako dantzari eta musikari eskolez gain, atzerrira egindako bidaiaiak adibidez, euskal kultura munduan zehar zabaltzeko aukera aberasgarria izanik: Herbereak (Holanda), Portugal, Bulgaria, Eskozia, Hungaria (Hungria), Zipe (Chipre), Flandes... Horrez gain, urtero-urtero atzerriko dantzariak jasotzen ditugu gure herrian, Andra Mari Dantzari Taldeak antolatzen duen Folklore bizian ikuskizun internazionalaren parte izanik, eta gauzak horrela, dagoeneko atzerriko 40 taldeetik gora ibili dira hemen, Usansolon, gurekin dantzan, beraien ohiturak gurekin partekatuz.

Atzerritik gure herrira bueltatuz, ezin daiteke ahaztu herriari egiten



zaion ekarpent kultural aberatsa: Inauterietan hainbat ikuskizun, Olentzero, jaietako alardeak, kalejirak, txarangarekin poteo musikatuak, euskal ezkontza eta abar luze bat. Inguruko herrietako alardeetan ere parte hartzen dugu, Arratiako Dantzari Egunean baita, ezin aipatu gabe utzi Bizkaiko Dantzari Eguna...



Beraz, aurten badaukagu zer ospatu, zer ospatu eta nola ez zer eskertu. Eskertu ibilbidea hasi zutenen gogoa eta ilusioa, eskertu urteen joan etorriaren proiektu honen parte izan zareten horiei guztiei, eskertu ibilbidean sinestu duzuen guztioi, eta eskertu beste 25 urtez ilusio berdinarekin aurrera jarraitzeko prest zaudeten guztioi. Esaldi batek horrela dio “pertsona txiki askok, gauzak txikiak eginez, mundua aldatu daiteke”, eta horrela da bai, nork bere harritxoa jarriz euskal kulturaren ondarea izango den harrresi amaiezin bat eraiki dugulako. Gora zuek eta gora Oinarin Dantzari Taldea! Ospatu daiguzan 25 urte hauek merezi dogun moduan eta jarraitu daigun ilusioz mende erdia ospatzeko lanean, guretik eta guretzako euskal kulturaz gozatzen. 



ITXAS ALDE DANTZA TALDEA

~BAKIO~

50 URTE DANTZAN



Itxas Alde ikurriña (1976)
Artikulu honen helburua ez da Bakioko Itxas Alde dantza taldearen historia kronologikoa bere horretan kontatzea (50 urteko bizitza, ibilbide luzea da eta). Asmoa taldeak denbora luze honetan bizi dituen mugarririk garrantzitsuenetan arreta jartzea da, taldearen norabidea moduren baten edo bestean markatu dutenak.

Aurrekoak eta sorrera

“Dantza talde bat noiz jaiotzen da?” galderari erantzun posible askorekin erantzun daki. Batzuentzako lehenengo agerraldi edo aurkezpen publikoa izango da taldearen jaiotza markatuko duena, beste batzuentzako entseztzen hasi zen momentua... eta beste batentzako baten burura taldea sortzeko burutapena gertatzen den momentua izan daiteke, oraindik ideia horrek izenik ez badu ere, edo lagunarteko afari baten sortutako burutazioa bada ere.

Ezin dugu Itxas Alderen sorrerari buruz berba egin aurretik Bakion existitu zen beste talde bat labur aipatu barik (gerra aurreko dantzariak alde batera utzita, jakina): *Gaztelugatxe dantza taldea*. Azken finean, moduren baten edo bestean, aurreko talde honen desagertzeak eragina izan zuen Itxas Alderen sorreran, eta hark herrian utzitako hutsunea betetzera etorri zen

Itxas Alde, hein baten. Gaztelugatxe taldea 60. hamarkada hasieran sortu zen eta 8-9 urtez martxan egon zen, 1970-1971 urtean desagertu zen arte (batzuetan talde baten jaiotza noiz izan den zehazterik ez dagoen moduan, berdin gertatzen da honen heriotzarekin, ez da eta egun batetik bestera gertatzen den zerbaiz izaten). Gaztelugatxe desagertzean, tarte batez herria dantza talde barik egon ostean, antza denez Bakioko eliza ondoko lokalean ume talde bat entseztzen hasi zen, hauetako batzuk ostera *Itxas Alde* izenagaz aurkeztuko den taldean partaide izango zirenak. Gerora *Itxas Alde* moduan aurkeztuko dan taldearen hazia, landatuta zegoen, hortaz.

Denbora batez entseguetan ibili ostean, *Itxas Alderen* lehen aurkezpen ofiziala herriaren aurrean 1974ko abuztuaren 15ean izan zen, Andra Mari egunean. Agur aldizkarian *Burgoazpi*



Itxas alde 1974 - Aurkezpen ofiziala

ezizenarekin sinatzen du Kepa Uriarte taldeko sortzaileak artikulua, honen berri ematen. Andra Mari eguna Bakion urteko jai egun handiena

da, eta urte harten Bakioko *Itxas Alde* batera Busturiko *Irrintzi Alai*, Foruko *Urdaibai*, Mundakako *Gazte Zar*, Sodupeko *Gazte Berri*, Urduñako *Itxaropena* eta Olakuagako *Eguzki Berri* dantza taldeek parte hartu zuten, Bermeoko *Erriko Lagunak* txistulari taldearekin batera. *Itxas Alderen* aurkezpena ezin izan zen modu arrakastatsuagoan izan.

Zergatik *Itxas Alde* izena? Alde batetik Bakioko herria itsasertzean dagoe-lako, jakina. Baino batez ere gure herriko nagusientzako esangura berezia zuelako izen horrek, gerra garaian Eusko Gudarosteko *Itxas Alde* batailoian ibiliak ziren herriko hainbat gudari gazte eta.

Aipatu legez, *Agur* aldizkariko artikulua Kepa Uriarte taldeko sortzaileak idazten du, eta bertan aipatzen dira taldearen sorreran garrantzi berezia izan zuten persona bi ere: Juanxu Larrinaga *Larra*, alde batetik, eta Ana Mari Arrugaeta, bestetik.

Lehenengoa, *Larri*, Sodupetik etortzen zen astero Bakiora dantzak irakastera, eta bigarrena, Ana Mari, bakiotarra, aurretik *Gaztelugatxe* taldean ibilia, hasieran nesken taldeaz arduratu zen. Sodupetaren laguntza ezinbestekoak izan zen *Itxas Aldeko* hastapenetan.

Aipatutako bi hauen ostean eterri ziren beste dantza

irakasle
batzuk ere: Ramon Aristondo,
Itziar Ormaetxea, Iñaki Martiartu, dantzari izandako Izaskun Atxa, Madalen Barturen, Birjiñe Bilbao eta Jon Barrenetxea... jakina dantza taldearen garapenean ezinbestekoak izan zirenak.



Itxas Alde (1983)

Ezin da aipatu gabe utzi *Itxas Alde* hasierako urteetan Bakioko *Bakea Guraso Elkartea*ren aldetik izan zuen lagunza eta babesra, ezinbestekoak izan zen eta, alderdi askotan, taldeak aurrera egin zezan.

Taldearen garapena

Taldea egoera eta momentu desberdinatik pasatu da bere ibilbidean zehar. Hasierako urteetan, 1977 arte, gora behera handi barik ibili zen bai Bakion (abuztuaren 15eko Andra Mari egunean, edo abenduaren 31an Olentzeroa ateratzen) eta bai ingurueta zenbait herriean dantzan ere. 1978tik aurrera taldea garatu egiten da, dantza errepertorioa ere zabaltzen doa eta beste jarduera batzuk ere hartzen ditu bere gain: umeen abesbatza eta antzerki taldea sortzen dira bere barnean. 80. hamarkada hasieran ordea, beherakada sumatzen hasten da taldean. Ume falta ez dagoen arren, dantzari gazteen gela gero eta handiagoa da, eta 1986an *Bakea Guraso Elkartea*ren desagertzearrean eragin zuzena izango du taldean

(ordura arte haien lokaletan egiten ziren entseguak eta). Orduan zenbait erabaki hartu ziren, egoera moduren baten iraultzeko asmoz: jarduera dantzetara mugatzea, taldea legeztatzea (Eusko Jaurlaritzako elkarteen erre-gistroan izena emanda), Euskal Dantzarien Bilzarreko partaidetza lortzea,...

1987. urtea erabakigarria izango da beherakadari



buelta emateko. Urte hartan Birjiñe Bilbao (urteetan taldeko dantzari eta dantza irakaslea) eta Xabier Goitiak hartzen dute taldearen gidaritza. Dantza irakasleen falta zegoen, eta euren eskutik eta Euskal Dantzarien Biltzarraren bitartez Gaizka San Pedro Bermeoko Alkartasuna taldektik eta Bernarte Irazabal (zoritzarrez urte gutxiren buruan, 1992an, hil zena) dantza irakasle moduan datozen taldera. Errepertorioa

Bertan ehundik gora dantzari eta musikarik parte hartzen dute gaur egun.

Itxas Alderen Nazioarteko Folklore Jaialdia Bakion

1991. urtean egin zuen *Itxas Alde* lehendabiziko elkartrukea atzerriko talde batekin, Portugalera. Hurrengo urtean Frantziara egin zuen bidaia ber-



Bakioko Itxas Alde

zabaldu zen, jantzi berriak egin ziren, urte hartan Dantzari Egunetara joaten hasi zen taldea, eta taldea Busturialdeko lehenengo Dantzarien Jaian partaide izan zen.

Ordutik aurrera igarri zen taldearen berpiztea. *Itxas Alde* bere dantza irakasle propioak izaten hasi zen berriro ere (taldeko dantzari nagusiek ardura hartuta), errepertorioa zabaltzen jarraitu zuen eta urtero Bakion egiten ziren ekitaldiak sendotuz doaz. 1990eko abuztuaren 15eko ekitaldia ordurako atze-oihalarekin, alokatutako argi-fokuekin eta kontrataturiko musikoekin egiten da. Aurreko urteekiko aldaketa nabarmena suposatu zuen honek. Hortik aurrera, abuztuan 15eko ekitaldia, taldearen urteko ekitaldi nagusia izan da, gaur arte. Urteekin aberasten eta indartzen joan zen ikuskizuna izan da, herriko urteko ekintza nagusienetako bihurtu dena (inguruko hainbat herritako eta beste dantza talde batzuetako partaideak ere erakartzen dituena).

tako jaialdi batean parte-hartzeko, eta era berean bi talde hartzen ditu herrian, Bakion Nazioarteko Jaialdia antolatz: Frantziakoa bat, eta Errusiak bestea. Hemendik aurrera ia urtero eta apenas etenaldirik gabe antolatu du *Itxas Alde* Nazioarteko Jaialdia Bakion, uztaila amaieran (normalean taldeak berak ekartzen duen talde batekin, eta Portugaleteko Nazioarteko Jaialditik ekartzen den beste talde batekin). Aurton, 2022an, XXX. Nazioarteko Jaialdia antolatzen du taldeak.

Itxas Alde munduan zehar

1993. urtea benetan garrantzitsua izan zen eta taldearen itzelezko ahalegina suposatu zuen mugarría izan zen: *Itxas Alde* Errusiara joan zen. Hartarako prestakuntzak aldaketa nabarmena ekarri zuen taldean, entseguetan, errepertorioa zabaltzean, kalitateean,... Ordutik jarraitu izan du taldeak ia urtero beste herrialdeetara bidaiatzen eta elkartrukeak egiten, euskal kultura eta

dantzak munduan zehar zabaltzen. Errusiaren ondorik (1993) etorriko dira Katalunia (1995), Italia (1996), Turkia (1996), Frantzia (1997), Argentina (1999), Bulgaria (2000), Frantzia (2000), Eskozia (2001), Frantzia (2001), Polonia (2002), Costa Rica (2003), Hungaria (2004), Ameriketako Estatu Batuak (2005), Norvegia (2006), Balearrak (2007), Mexiko (2008), Nepal (2009), Txina (2010), Galizia (2012), Kroazia (2013), Estonia (2014), Txekia (2015), Italia (2016), Hungaria (2017), Belgika (2018), Portugal (2018) eta Frantzia (2019). Azken bi urteetan, pandemia dela eta, irteerarik egin gabe egon ondoren, aurten 2022an Valladolideko folklore jaialdi batean parte hartuko du taldeak uztalean. Urtero beste herrialde batera egiten den bidaia, zalantza barik, taldearentzako eta dantzarentzako biziagiri handia da.

Beste mugarri batzuk

Beste mugarri garrantzitsuak izan dira tamalez taldeak bizi izan dituen dantzarien heriotzak: taldearen sorrerako dantzaria izan zen 17 urteko Javier Muruagarena 1977an batetik, eta 1992an 21 urterekin auto istripu batengatik joan zitzagun Bitortxu Bilbaorena, bestetik. Taldean ezin-bestean eragin zuten galera hauek.

Entseguak egiteko lokalak direla eta ere, gorabeheraren bat edo beste bizi izan ditu taldeak. Aipagarriena kale gorrian lau urtez entseatzan eman behar izan zuen denbora izan zen (2012tik 2016ra), harik eta 2016an udalarekin gaur egun erabiltzen duen Ibarreta udal eraikineko espazio batzuk erabiltzeko hitzarmena sinatzea lortu zen arte.

Azken urteetako mugarri garrantzitsuena, zalantza barik, 2018ko irailean gertatzen da, Birjiñe Bilbao eta Xabier Goitia taldeko gidari eta zuzendariek, hamarkadetako lanaren ondoren (Birjiniek taldearen hasieretatik eta Xabierrek 80. hamarkada erdialdetik) merezitako atsedena hartu eta taldearen ardura uzten dutenean. Ordutik dantzari nagusien taldeko kideetako batzuk osatzen duten zuzendaritza-batzordeak

kudeatzen du taldearen jarduna, elkarrearen ardurak lantalde desberdinetan banatuta daudelarik. Erronka handiena Birjiñe eta Xabierren lekukoa hartzea eta taldearen mailari eustea izan da. Zorionez, taldea inoiz baino egoera hobean utzi zuten, eta behar izan duen guztietan haien laguntza izan du aurrera egiteko, jakina

Azken urteotako aro berria

2018-2019 ikasturte hasiera barne hausnarketari eusteko baliatu zuen taldeak eta indarrez eta gogoz ekin zion. Bi izan ziren erabaki nagusiak: batetik ordura arteko urteroko ekintzak mantentzea (2019an Frantziara joan zen nazioarteko jaialdi batean parte hartzen,



Itxas Alde - Lovaina (2018)

uztailean Nazioarteko Jaialdia antolatu zuen, eta abuztuaren 15ean goizeko eliza aurreko dantzaldiaz gain, 100 dantzari ingururen parte-hartzearekin Auñamendi ikuskizuna eskaini zuen), eta bestetik herrian taldearen presentzia indartzeko asmoz beste ekimen batzuk ere martxan jartzea (otsailean aratuste herrikoiak antolatu eta ospatu zituen, irailean Gaztedi Dantza Taldearen eskuistik Zuberoako maskarada ekarri zuen, abenduan Olentzero eta Mari Domingiren kalejiran parte-hartu zuten dantzariekin...). Taldea fase berri batean murgildu berri zen, zoritzarrez pandemia etorri eta asmo eta plan guztiek bertan behera geratu zirenean.

Pandemiak taldean eragin du, jakina. Partehartzaile kopuruan, motibazioan... baina



Itxas Alde - Kathmandu - Nepal (2019)

taldeak argi zeukan testuingurua hobetu bezain laster egoerari buelta eman behar zitzaiola. 2021ean osasun neurriak lasaitzen joan ziren heinean laster hasi zen martxa hartzen, taldea berpizteko esfortzu itzela eginez. Osasun neurri guztiek errespetatuz, dantza ekintza segurua zela erakutsi zuen *Itxas Alde*: San Jose jaietako ekitaldian parte hartuz, udari ongi etorria emateko Bakioko hondartzan grabatutako *Txiprizztin* dantzaldia eginez, uztailean folklore jaialdia antolatzu eta abuztuaren 15ean, egun handienean, *Baskonia* ikuskizuna plazaratz. Dantza taldeak ez zion inori ezer erakutsi behar, baina bere buruari frogatu zion oraindik ere bizirik zegoela!

2022a, 50. urteurreneko urtea, ospakizun eta ekimenez josita etorri da (dantzari eta dantzari ohia bat eginez ospatu zuten *Itxas Alde Jaia*

Baina, orokorrean, San Anton, abeltzainek ospatzen duten jaia da, euren opariekin (ogia, alea edo bazka) mezetara joan eta eliza edo ermitara euren etxeko animaliak bedeinkatzera eramaten dituztelarik. Patroiaaren ermitan Gabonetako enborreko txingarrak edo kea jartzen ziren, eta, horren gainean, ganadua edo zaldiak pasaraz-

ten zituzten, jarraian tenpluari hiru bira emanet. Gainerako animaliak babeste aldera, beren esparruetara eramaten zitzakien txingarretako kea eta San Anton irudia. Gainera, egun horretan animalieiz ez zitzaien lanik eginarazten eta nolabaiteko askatasuna ematen zitzaien. Nafarroako Erriberan, bezperan, bi su pizten ziren.

San Anton da elkar laguntzeko elkartegi gehienetako edo abeltzain-ermandadeen buru. Bere babesean ospatzen dira ganadu azokak eta baita herriko jai batzuk ere. Araban eta Bizkaian, jendeak eskaintzak (txerriaren produktuak, ogiak, arrautzak, gozokiak, etab.) eramaten ditu elizara, eta sakristauak edo beste pertsona batek enkantea egiten du (Garain, errematak izenarekin ezagutzen da) bertaratutako artean. Bizkaian eta Nafarroan ere ohikoa izan da txerriaren zozketak egitea. Arabako lurretan urteko lehen torradak jan ohi ziren; eta gazte edo ikasleen multzoek, zintzarri eta karrakak zeramatuzelarik, zintzarrrots handiak sortzen zituzten. Halaber, Arabako artzain batzuk eskean zebiltzan egun horretan.

San Sebastián (urtarrilak 20)

Tradizionalki, San Roke (abuztuak 16) eta San Sebastian (urtarrilak 20) elkarren lehian ari dira izurri beldurgariaren aurkako abokatu nagusienetako. Bezperan suak antolatzen ziren, eta gaur egun nabamentzen dira Azpeitian eta, batez ere, Donostian, Gipuzkoako hiriburuan (1597tik San Sebastian santuaren Patronatutuaren dagoen hiria), ospaturiko “danborradak”. Azken hiri horretan, donostiarrek danbor eta upel ugari batera jotzen dituzten bitartean, festa modu erakargarriaren ospatzen da gau osoan zehar. Behin elkartea ezberdinietan onto afaldu-ta eta gaueko 12etatik aurrera hiriko bandera igota, Sarriegui maisuaren “martxaren” doinuan, konpartsak kalez kale ibiltzen hasten dira. Dirudienez, jai honek bertako Inauterien garaietako oroitzapenak baditu ere, jaiaaren egungo fisonomia “Union Artesana” elkartearren inguruan sortu zen. Antza denez, 1882an elkartea horrek hamarkada batez Independentzia Gerrako antzinako jantzi militar batzuk erabiltzea erabaki zuen. Baino jantzi horiek hainbestera ino-sar-

tu ziren herrian, non ezin izan baitzen aurreko egoerara itzuli.

Lakuntzak (Nafarroa) erromeriarekin ospatzen zuen jaia bere ermitan eta zaindariaren festarekin bere herrian. Hain handia zen Lakuntza-tarkoen debozioa, ze ermitatik parrokiara era-man ohi zuten santua, errogatiba edo lehorte garaian. Bezperan txistulariak, behin herrira iritsita, "kalejira" egiten zuen, alkatearen etxe-tik hasita. Festaren egunean, goizeko zortziak aldera, txistulariak diana bat jotzen zuen eta, ondoren, lakuntzatarrak baselizara joaten ziren (Arruazuko lurretan kokatuta dago San Sebastian ermita) meza entzutera; gero, txokolatea hartzten zuten eta jarraian, Arruazura jaisten ziren (non bertako plazan dantza egiten zuten solte). Arruazuko plazan dantza egin ondoren, Lakuntzara itzultzen ziren. Lakuntzan baziak zuten eta, baziak zuten, gazteek udaletxearen sarreran biltzen ziren, eta udalbatzan plazara joaten ziren (txistulariaren soinuek eta mutilen txaloek edo saltoek lagunduta), non "Alkate dantza" egiten zuten. Agintariekin dantzako partaideak eta publiko orokorra gonbidatzen zituzten zahagi bat ardo (barkilloetan pitxeren bidez zerbitzatua), gazta eta ogia hartzera.

Urdiainen, Sebastian izeneko lau gizonek santua prozesioan zeramatzen eta prozesioa igarotzearekin batera, salbak jaurtitzen ziren leiho eta baratzeetatik. Meza ospatzen zuten eta ganadua libre uzteko ohitura zuten. Herriko jaia zen, eta bertan, Udalak ardoa ekartzen zuen, auzokoek kontsumitzeko, eta gazteek San Antonek lortutako intxaurrek dastatzen zituzten. Ez zen falta ere egun honetan dantzatzen zen "Giza dantza" tipikoa.

San Vicente eta San Anastasio (urtarrilak 21 eta 22)

Oionen (Araba), San Bizente eta San Anastasio zaindarien jaietan (urtarrilak 21 eta 22) protagonista nagusiak dira udal sindikoa eta "Cachi" izeneko pertsonaia berezi bat (bi koloretako oihalezko jantzi batez jantzia: gorria eta berdea).

Bezperan su handi bat pizten da. Festaren egunean, aldez aurretik herritarrak udaletxean bilduta, udal bandera jaitsia da zeremoniatsu udaletxetik. Bandera jaitsi ondoren, udal sindiko batek jasotzen du eta prozesioko ibilbidean parroquia-elizaren eramaten du. Elizako atearen aurrealdean, "Cachi" lurrean etzaten da eta sindikoa "Cachi"-ren gainean herriko entseina edo bandera astintzen du, "Cachi"-a alde batetik bestera iraultzen den bitartean. Hori guztia musika talde batek interpretatzen duen habanera berri baten erritmo inguratzalearekin lagunduta garatzen da.

Banderaren ondeoaren zeremoniala amaitu ondoren, "Cachi" altxatu egiten da eta, bere txanoa airean botaz, oihu egiten du: Gora San Bizente eta San Anastasio! (Bere jaka bikolorrak bizarrean josita daraman epaia bera). Entzuleek indartsu erantzuten dute: Gora!

Ondoren, elizan sartzen dira meza nagusia entzutera ("auroro" goiztiaren kantek girotuta). Elizkizuna amaitu ondoren, prozesio zibil solemnean itzultzen dira udaletxera eta bertako plazan, berriz ere, bandera astinduko dute era berdinatan.

Oionen ere, (San Bizente eta San Anastasio, urtarrilaren 22an), 8 eta 12 dantzari bitarteko talde batek, "bastonero edo katximorroaren" zuzendaritzapean, "Danza de los Patrones" izeneko dantza egiten du. Dantzariak, kriskitinen soinuarekin batera, aurrera egiten eta atzera egiten dira, Oiongo zaindariaren jaietako prozesioan. Bertan, udalbatzari, herriko banderari eta "Cachi"-ari laguntzen diente.

Ondorio gisa, esan dezakegu gizarte tradizionalek (beren egituraketa ekonomiko eta soziala dela-eta) izaera zurruna, egonkorra edo eraldaketa motela duten elementu kulturalak gorde dituztela. Europako nekazarien edo landatarren kulturak, mespretxu gisa idealizatzea saihestu nahian, iraganeko garaietako bizi-sistema gororazle bat kontserbatu eta mantentzen du, baina zentzu edo esanahi zehatz batekin kolektibitate bakoitzarentzat une historiko edo sozial

desberdinetan. Bere aberastasunak eta alderdien anitzasunak berresten digute komunitate tradicionalaren bizimoduak eta sinesmenak (beste gizarte mota bat bezalaxe) dinamikoak direla eta, beraz, eboluzionatzeko, eraldatzeko eta are desagertzeko gai direla.



ARABA

ADVIENTO

Festividad

Acto Tradicional

San Nicolás (6 dic.)

*Elección del "Obispillo"
Cuestación del "Obispillo"*

La Inmaculada (8 dic.)

*Ronda nocturnas
Hogueras nocturnas*

Santa Lucía (13 dic.)

*Romerías
Ferias de ganado*

CICLO DE NAVIDAD

Festividad

Acto Tradicional

Nochebuena (24 dic.)

*Torco de Navidad
Cantos o cuestación de Navidad
Cena
Belenes vivientes
Autos Sacramentales en las iglesias
Adoración de pastores*

Navidad (25 dic.)

Belenes

Santos Inocentes (28 dic.)

Bromas

Año Viejo (31 dic.)

*Quemar odres, botas o un muñeco
Referencia mitológica: Ujanko*

Año Nuevo (1 ene.)

Recoger agua nueva

Cuestación de "Urte berri" o "Aguinaldo"

Epifanía o Reyes (5-6 ene.)

*Cuestación de "Aguinaldo" y regalos
Adoración de Reyes*

San Antón (17 ene.)

Cencerrada

Bendición ritual de animales

Subasta en su ermita

Cencerradas

Elaboración y consumo de torrijas

San Vicente y San Anastasio
(21 y 22 ene.)

Hogueras

Auroras

Danzas

BIZKAIA	
ADVIENTO	
Festividad	Acto Tradicional
Santa Bárbara (4 dic.)	<i>Bendiciones en altozanos</i> <i>Protección contra tormentas</i>
● San Nicolás (6 dic.)	<i>Cuestación</i> <i>Fiesta</i>
● La Inmaculada (8 dic.)	<i>Comida de cofradía</i>
● Santa Lucía (13 dic.)	<i>Patronazgo de modistas</i> <i>Ferias de ganado</i>
● Santo Tomás (21 dic.)	<i>Pago de rentas</i> <i>Ferias de Navidad</i>
CICLO DE NAVIDAD	
Festividad	Acto Tradicional
Nochebuena (24 dic.)	<i>Rondas nocturnas o novenarios</i> <i>Cena</i>
● Navidad (25 dic.)	<i>Bendición de pan o "ogisalutadore"</i> <i>Misa de Gallo</i>
● Santos Inocentes (28 dic.)	<i>Belenes</i>
● Año Viejo (31 dic.)	<i>Bromas</i>
● Año Nuevo (1 ene.)	<i>Bromas nocturnas o "erroldak"</i>
Epifanía o Reyes (5-6 ene.)	<i>Cuestación de "Urte barri" o "Aguinaldo"</i> <i>Cuestación de "Erregeak edo Apalazio"</i> <i>Cuestación de "Aguinaldo"</i>
● San Antón (17 ene.)	<i>Cabalgatas</i> <i>Regalos infantiles</i> <i>Adoración de Reyes</i>
	<i>Bendición de animales</i> <i>Subasta o "erremitak"</i> <i>Ferias de ganado</i> <i>Rifa del cerdo</i> <i>Fiestas patronales</i>

GIPUZKOA	
ADVIENTO	
Festividad	Acto Tradicional
San Nicolás (6 dic.)	<i>Elección del "Obispillo"</i> <i>Cuestación del "Obispillo"</i>
● Santa Lucía (13 dic.)	<i>Feria de ganado</i>
● Santo Tomás (21 dic.)	<i>Pago de rentas</i> <i>Ferias de Navidad</i>
CICLO DE NAVIDAD	
Festividad	Acto Tradicional
Nochebuena (24 dic.)	<i>Cuestaciones de personas necesitadas</i> <i>Cuestación del Niño Jesús o belenes</i> <i>Tronco de Navidad</i> <i>Cuestación de "Olentzero"</i> <i>Cena</i> <i>Misa de Gallo</i> <i>Belenes vivientes</i>
● Navidad (25 dic.)	<i>Belenes</i>
● Santos Inocentes (28 dic.)	<i>Bromas</i>
● Año Nuevo (1 ene.)	<i>Cuestación "Dios te Salve"</i>
Epifanía o Reyes (5-6 ene.)	<i>Cabalgatas</i> <i>Regalos infantiles</i> <i>Adoración de Reyes</i> <i>Cantos</i>
● Huida de La Sagrada Familia (siguiente domingo a Reyes)	<i>Misa y representación</i> <i>Oblatak</i>
● San Antón (17 ene.)	<i>Bendición de animales</i>
San Sebastián (20 ene.)	<i>Tamborradas</i>

IPARRALDE	
ADVENTO	
Festividad	Acto Tradicional
Nochebuena (24 dic.)	<i>Tronco de Navidad</i> (NB) <i>Cuestación de "Olentzero"</i> (L) <i>Cuestaciones juveniles</i> (NB) <i>Cena</i>
Navidad (25 dic.)	<i>Tronco de Navidad</i> (NB)
CICLO DE NAVIDAD	
Festividad	Acto Tradicional
Año Viejo (31 dic.)	<i>Cuestación "Dios te Salve"</i> (L)
Año Nuevo (1 ene.)	<i>Cuestación infantil "Phika, haur"</i> (Z) <i>Días augurales o "Zotalegunak"</i> (L/NB/Z)
Epifanía o Reyes (5-6 ene.)	<i>Cuestación infantil "Phika, haur"</i> (Z) <i>Elección familiar con el haba</i> (NB) <i>Adoración de Reyes Magos</i> (L)



Jentilbatza-Aralarren (Josu Larrinaga Zugadi)

NAVARROA	
ADVIENTO	
Festividad	Acto Tradicional
San Nicolás (6 dic.)	<p><i>Elección del "Obispillo"</i></p> <p><i>Cuestación del "Obispillo"</i></p> <p><i>Cuestaciones de personas necesitadas</i></p>
CICLO DE NAVIDAD	
Festividad	Acto Tradicional
Nochebuena (24 dic.)	<p><i>Tronco de Navidad</i></p> <p><i>Cantos o cuestación de Navidad</i></p> <p><i>Cuestación de "Olentzero"</i></p> <p><i>Cena</i></p> <p><i>Misa de Gallo</i></p> <p><i>Belenes vivientes</i></p> <p><i>Autos Sacramentales en las iglesias</i></p> <p><i>Adoración de pastores</i></p>
● Navidad (25 dic.)	<p><i>Villancicos</i></p> <p><i>Regalos, "estrenas" y aguinaldos</i></p>
● Santos Inocentes (28 dic.)	<p><i>Bromas y engaños</i></p> <p><i>Sorteo de cartas o "Echar los Santos"</i></p>
● Año Nuevo (1 ene.)	<p><i>Ritual de agua nueva o "Ur goiena"</i></p> <p><i>Rituales familiares</i></p> <p><i>Cuestaciones</i></p> <p><i>Regalos, "estrenas" y aguinaldos</i></p>
● Epifanía o Reyes (5-6 ene.)	<p><i>Cencerradas</i></p> <p><i>Cuestaciones</i></p> <p><i>Cabalgatas o Misterio de los Reyes</i></p> <p><i>Adoración de Reyes y danzas en la iglesia</i></p> <p><i>Elección rey de Faba, del haba y cencerros</i></p> <p><i>Sorteo de cartas o "Echar el reináu"</i></p> <p><i>Regalos, "estrenas" y aguinaldos</i></p> <p><i>Designar mayordomos de juventud</i></p>
● San Antón (17 ene.)	<p><i>Bendición de animales y sus alimentos</i></p> <p><i>Fuegos purificadores</i></p> <p><i>Rifa del cerdo</i></p> <p><i>Ritos de paso</i></p>
● San Sebastián (20 ene.)	<p><i>Fuegos</i></p> <p><i>Rifa del cerdo</i></p> <p><i>Romerías, festividades y danzas</i></p>

MARIJESIAK, GABONETAKO KOPLAK

- Egileak: Igone Etxebarria, Akaitze Kamiruaga (Labayru Fundazioa) -

Gure herri-egutegian, urtarro edo urte-sasoi bakotzak berezitasun eta ezaugarri propioak ditu. Ne-kazaritza eta abeltzaintza nagusi diren herrieta, eguraldiak hala behartuta, etxeko eta soroko lanak oso ezberdinak dira udan eta neguan, eta horrek eguneroko bizimodua baldintzatzen du.

Neguan zehar, gure tradizioko egutegian ziklo handi bi betetzen dira: Gabonetako eta inauterietakoa. Zikloak dira, hau da, egun jakin eta bakar bateko jaiak izan beharrean, (Domu Santu edo San Inazio diren moduan, kasurako), aldi bat hartzen dute, eta denbora-tarte horretan sartzen dira bai aurrekari modura hartzen diren jaiegunak, bai ziklo horretako egun seinalatuak.

Sasoi horietako hasiera-amaierak ez dira beti hain zehatzak, herririk herriira aldatu egiten baitira; baina orokorrean, esango dugu Gabonak San Nikolas egunean hasi eta Erregenetan amaitzen direla; eta inauteriak, ostera, San Anton-San Blas-Kandelaria-Santa Agedako jaietan hasi (leku batzuetan Erregenetan bertan hasten dira) eta inauteri-asteartearen amaitzen direla (gaur egun, lekuaren arabera, askoz geroago luzatzen badira ere).

Ziklo bien arteko denborak ia-ia negu osoa haruten duela esan daiteke. Lehenagoko nekazaritza bizimoduan etxe barruko lanak egiteko garaia zen, soroan eta ortuan gauza handirik egin ezin zen sasoia. Horregatik beragatik, jateko freskoak urriagoak ziren, baina gure baserriean jenero ugari zegoen gordetegi eta ganbaretan. Udzazneko uzta batuta zegoen: garia, artoa, patatak, sagarrak, gaztainak, intxaurrak...; eta San Martin egunetik aurrera, txaurre-hiltzeak hasten ziren, eta horren emaitzak gatzun-asketan edo sukaldetan eskegita zeuden, jateko prest.

Horrek denak eraginda akaso, negu partean hainbat eske-erronda egiten (izan) dira han-hor-hemen. Denboran hurrenez hurren, San Nikolas, Marijesiak, Olentzero, Urtebarri, Erregen, Santa Ageda, Eguren Zuri..., egun seinalatuak dira, umeek eta gazteek kantuan eta eskean ateratzeko aprobetxatzen dituztenak. Izan ere, eurak dira gizartean baliabide ekonomiko eskasena daukanetan, eta aukerarik txikiengoa dutenean errondari irteten dira.

Eske-erronda guztiotan osagai batzuk berdin-antzkoak dira, motiboa edo ospakizuna gorabehera. Denetan gazte-taldeak ateratzenten dira, joan den gizaldian mutil gazteak, sarritan kintoak. Errondan ibiltzen dira etxerik etxe, kantuaren trukean opari eske. Gaur egun, gehien baten, dirua batzen da, helbururen baterako edo ongintzako jardueraren baterako; baina garai batzuetan jateko gaur besteko komenientziarik ez zegoenean, estimatuak izaten ziren txorizoak, arrautzak eta gaineko jeneroak, lagunekin batera jateko edo elkarren artean banatzeko gero.

Erronda guztiotan errepikatzen den beste ezaugarri bat kopletako edukia da. Aldaera asko daude, jakina, baina gehien-gehienetan egitura antzekoa da: dagokion motiboaren berri ematen da -Marijesietan eta Olentzerotan, Jesusen jaiotza; santagedatan santaren bizitza, eta abar; etxeak koplatzen dira; eskaria egiten zaie, eta jasotakoa eskertu edo batzuetan, gordinkeriaren baten bidez, etxekozen zekenkeria adierazten da.

Orain galdua badago ere, lehen ohikoa zen etxe batera heldu orduan, hil berriren bat bazegoen, abesteko baimena eskatzea, eta abesterik nahi izan ezik, aitagurea errebatzea.

Horrez gainera, errondan dabiltsan taldeek koplen erritmoa makilen kolpeekin eroatea ere ohikoa da, batzuetan bakarlaria-taldea jokoak ere egiten direla. Makilen joaldia lurra esnatzeko deitzat interpretatu izan da, arranak eta zarata egiteko gainerako osagaiena bezala.

Orain arte azaldu dugun guztia betetzen da Marijesietan ere, ezaugarri orokorrak diren aldetik, baina goazen beronen zertzeladak azaltzera.

MARIJESIAK BIZKAIAN

Marijesiak izenez ezagutzen dugun usadioa, Bizkaikoa dela esan daiteke. Gaur egun Gernikaldean eta Oiz mendiaren azpiko ingurueta gordezen da. Zerrenda laburra da tradizioari, indar handiago edo txikiagoarekin, bizirik eussten dioten herriena: Gernika, Muxika (Ariatzan eta Gorozikan talde bana ateratzen da), Gautegiz-Arteaga, Ea, Lekeitio, Ibarra, Iurreta, eta Abadiño.

Herriotan guztiotan taldeak ateratzen izan dira Gabon aurreko egunetan Jesusen jaiotza iragarazteria, eta eskea egitera. Guztietan eske-erronda bat izan arren, herri bakoitzak bere berezitasunak ditu.

Hala ere, kantuaren aztarnak eta sidurriak Bizkaiko beste herri askotan ere ezagutzen dira, hainbat biltzailek batuta. Kantutegietan eta kantuen bilketetan Bizkaiko eskualde desberdinetan jaso izan dira kopla edo estrofa solteak, bakoitzak bere doinu bereziarekin. Horrek erakusten digu ohitura gaur ezagutzen duguna baino zabalagoa izan dela, eta errondan ibili barik ere, Gabon-kantu moduan ezaguna izan dela. Munitibar, Zeanuri, Artea, Arrieta, Larrabetzu, Bermeo, Zeberio eta beste hainbat herritako lekukotasunek argi erakusten dute usadio honen zabalera. Hala ere, halakoetan, gehienetan, kantariekin ez dute lotzen eurek dakiten kantuari marijesiekin.

IZENA

Izena dela eta, alde batetik esan behar da deitu-

ra bat baino gehiago erabiltzen dela, herriaren arabera. Marijesiak esaten da Gernikan, Muxikan, Gautegiz-Arteagan eta Lekeitio, lekuaren lekuko aldaerekin: Marijosiek, Marijesusak... Izan ere, kantuaren leloak halaxe dio: "Maria, Jose, Jesus, Maria", eta hortik dator izena.

Beste alde batetik, eta hau batez ere Gernikan gertatzen da, deitura honen bidez kontzeptu bat baino gehiago adierazten dira: kantu eta erronda bera da, baina kantariak eurak ere marijesiak dira. Marijesiak instituzio moduko bat dira herrian, eta errespetu handiz hartzen dituzte marijesi bakarlari ibilitako edadekoak. Horren adibide da, kasurako, ibilbidea egiten dutenean, euron etxe ondotik igarotzean, geldialdia egitea eta bertan abestea.

Beste izendapen bat da Abendua. Hala esaten diote Ean, Iurretan, Abadiñon eta Mendatan. Kantua gehien-gehienetan "Abendu santu hone-tan" bertsoarekin hasten da, eta baliteke hortik hartzea izendatzeko modua. Kantariak halakoe-tan abendu-mutilak dira.

Eta ia guztiz galdua badago ere, Kebonikoak izena jaso dugu Ibarrangelun. Koplen artean bat bakarra egiten da gaztelaniaz: Jesucristo! / Ay qué bonito es el niño / Jesucristo! Hipotesi bat da 'qué bonito' horretatik datorrela Keboniko izena, beste aldaera batzuetan ere agertzen dena: joenikoak.

NOIZ ETA NOLA EGITEN DIREN

Marijesiek Gabonak datozena aurreratzen dute, Jesusen jaiotza iragartzen dute. Horregatik, Gabon eta Eguberri inguruaren ibiltzen dira kantuari. Lekutik lekura eta herritik herrira aparteko jokaerak daude. Baliteke iraganean toki guztietan antzera edo bateratsuago izatea, baina gaur egun iraupen, baldintza eta modu ezberdinetan egiten dira errondak.

Iraupenari dagokionez, bederaziurrena egiten dute Gernikan, Ean eta Gautegiz-Arteagan. Hau



Jesus umea andetan. Ibarrangelu. 1969

da, bederatzi egunez irteten dira kantuan, azken saioa abenduaren 24koa delarik. Bederatzi egun horietan berdintsu jokatzen dute, baina abesten duten kantua desberdina da, eta leloaren araberan bereizten da. Hiru estribillo daude: "Maria, Jose", "Jesukristo" eta "Bart Belenen". Lau egunean lehenengo leloari laguntzen dioten estrofak kantatzen dituzte; beste lautan "Jesukristo" erre-pikadunak; eta azkenekoan "Bart Belenen".

Zikloa hori bada ere, leloen banaketa edo txandakatzea herritik herrira ezberdin egiten da: lehenengo lau egunetan kopla batzuk eta hurrengo lauretan beste batzuk, edo egunetik egunera tartekatuta. Estribillo bakoitzarekin kopla jakin batzuk, edo koplak nahastean estribillo eta doinu ezberdinekin.

Baina, edozelan ere, "Bart Belenen" leloa denek egiten dute 24an. Azken egun horretan egiten dute eskea ere. Aurreko egunetan, beti iluntze-gau aldera abesten dute, eta herrian zehar edo egun bakoitzean auzoka banatuta egiten

dute. Hala ere, 24an herri osoan ibiltzen dira, egunez, eta eskean.

Gernikako kasua berezia da, marijesien taldea goizaldean ibiltzen delako. Goizeko 4:00etan Andre Mari parrokiaren aurrean batu eta han hasten dira egunero, 6:00ak arte gutxi gorabehera.

Aipatutako hiru herrietan, taldeak osotzeko eta ibiltzeko moduak ere ez dira berdinak. Gernikan bakarlaria beti taldea baino pauso batzuk aurrerago doa, baina lar urrundu barik. Taldeak koruak egiten dituenean, bakarlaria babestu behar duelako. Ibilian abesten dute, belaunikatzen diren lekuetan izan ezik. Garai batean, gizon helduek baino ez zuten parte hartzen, baina gaur egun andreak eta gizonak, edadekoak eta gazteak, denak elkarrekin ibiltzen dira nahastean.

Gernikan oso giro berezia sortzen da goizaldeko orduetan. Herria lo dago, dena isil-isilik, dena geldi, ez trafikorik, ez ezer... Bainamarijesiak

abesten hasten direnean, herritarrek, zeozelan adi daudela edo itxaroten daudela adierazteko, etxeetako argiak pizten dituzte; edo leihoa eta balkoieta irteten dira, esker-onoa erakusteko. Euren esanetan, etxeetan dauden horien konplizitate edo kidetasun gabe kanpoan egiten den kantu horrek ez dauka zentzurik. Denak dira marríjesiak, kantatzen dutenak eta entzuten daudenak.

Ean neska-mutil berdingoek osotzen dute 9 laungoekoa taldea, eta formazioan doaz ilara bitan. Horiek ere ibilian abesten dute, eta leku jakin batzuetan belauniku egiten dira. Gautegiz-Arteagan neska-mutil gazteak dira kantariak; musika-soinuekin doaz, eta etxe aurreetan geratuta abesten dute.

Ibarrangelun ezagutu izan dute hirurrena, hau da, hiru eguneko erronda sorta, baina badirudi bederatzi egunekoak egitea ezinezkoa zen urteetako laburpena zela.

Ohitura bizirik mantentzeko ahalegina egin duten beste herriean, egun bakarreko erronda egiten da, gehienetan Santa Agedakoaren antz

handiagoz.

Halakoetan gazte edo herritar taldea ordu jakin batean abiatzen da etxerik etxe. Batera heltzean, korroan jarri eta kopla sorta bat abesten dute; gehienetan bakarlarria aurretik eta taldeak leloarekin erantzuten duela. Halakoetan, kantuak dituen hiru zatietatik, bakoitzetik estrofa batzuk aukeratuta osotzen dute errepetorioa.

Etxekoak itxaroten egoten dira, eta ez da arra roa heltzen direnerako txokolatea, ardoa, jateko zerbaile edo gozokiak prest edukitzea kantariei eskaintzeko. Horrez gainera, borondatea ere ematen diete, abeslariek egiten duten eskeari erantzunez.

Sarri taldeak makilekin markatzen du kantuaren erritmoa, batzuetan baita musika-tresnekin ere; eta eskea bera ageriagokoa da. Gabon-egunaren bezperan ibiltzen dira abesten, hau da, abenduaren 23an. Holaxe egiten dute Ariatzan (Muxika), Ibarrurin (Muxika), Mendatan, Iurretan, Oromiñon (lurreta), Lekeitio eta Mendiolan (Abadiño).



Gernikako kantariak goizaldean, 2007



Dirua batzen. Mendiola (Abadiño). 2006

JATORRIA

Marijesien edo Abenduaren jatorriari buruz ez dakigu gauza argirik. Jose Antonio Arana Martijak Erdi Aroan elizak dotrina irakasteko eratzen zituen misterio edo antzezpenetan ikusten du marijesien aurrekaria. Antzerkiok eliza barruan egiten ziren, baina une batean errespetu fal-takotzat jo, eta kanpoan, elizpean egiten hasi ziren.

Gehienetan Bibliako pasarteak antzezten ziren, ikuspegí didaktikoarekin. Eta halaxe da marijeseitan ere. Kantuak, gainera, lagundu egiten du mezua gordetzen, buruz ikasten.

Gernikako Marijeseitan, Arana Martijak antzerkiaren, villancico generoaren eta baladen ezaugarriak ikusten ditu. Izan ere, kantariekin leku jakinetan belauniko jarrita abesten dute; Testamentu Zaharreko pasarteekin hasi eta Jesusen jaiotzara artekoak kontatzen dituzte. Hiru kanta sorta izateak ere aurretiko antzerkiaren zatiiek

izango luke lotura.

Bestalde, testuen ezaugarriei erreparatuta, Manuel Lekuonak egile baten eskua igartzen du, eta non hedatuta dagoen ikusita, Bermeoko frantziskotarren komentuko fraideren baten esku ote dagoen proposatzen du.

Dena den, ez da elizako usadioa, ez dago elizkizunei eta abadeen zereginari eta ebanjelizante-prozesuari lotuta. Elizatik kanpora egiten da, eta herri-tradizioko ohituretan sartzen da, bai transmisioari dagokionez, bai antolatzeko eta gauzatzeko moduei dagokienez. Edozelan ere, aitortu beharra dago, kasu batzuetan abadeek garrantzi handia izan dutela transmisioan eta ohiturari eusteko ahaleginean, herritik herrira eta garaitik garaira aldeak egon badira ere.

Lekukotasun batzuen arabera, kopla horiek meztan, edo Gabonetako meza amaieran Jesus Umeari muin egitean abesten ziren; Larrabetzun, Munitibarren eta Gernikan kasurako. Baino ohi-

COPLAS *
A LA ENCARNACIÓN, Y NACIMIENTO
de Nuestro Señor IesuChristo. *

Gau on Sanctu onetan
 Jaunaren iaiacean
 pozgarugaitean
 guslioč morzean.

Ne garrez dago art
 aimbat urtean;
 Jauna iasizaitez
ceruetarecan.

Aita Adam eguztan
 lunaren gancan,
 becatu eguztan
 iauñizan arcaan.

Doncella ederbatec
 Belengo erriean
 seña IesuChristo
 dauco sabelean.


Limboegi egoan
 bost mila urtean;
 Jauna iasizaitez
ceruetarecan.

Eguzqui · Diuinala +
 gauerdi batean
 etorriazah lurrez
 guizonen soñean.

* * * **Coloquio entre los Pastores.** * * *

Machiniquito-
 cerdio Chetu?
 atodrióna?
 ce barrigogu?

2. Barridoguce,
 Angueru mila
 gure menditic
 iragodira.



tura bera, Elizari barik, herri-tradizioari lotuta dago.

Testuen testigantza idatzirk zaharrena 1699an Mexikon inprimatutako liburu batekoa da, Nicolás Zubia Araozzen lan baten aipamenean dator, eta zehar bidez heldu zaigu, José de Lezamizen

argitalpen batean, Zubiarena galdua omen dago eta.

Mende bi geroago, 1898an, Resurrección María Azkuek Euskalzale aldizkarian eman zituen Lekeitioko koplak, sei-zazpi laguneko taldeak kantuan ibiltzen zirela esanez, bakarlaria aurretik eta tal-



Andrazkoak ere bakarları. Iurretako taldea. 2013

dea atzetik koroa eginez.

Hurrengo lekukotasuna bikoitza da. “Goitia y Compañía” moldiztegiak 1919an Gernikan ate-ra zuen bat, eta beste bat data barik inprimatu zena, gerotxoago antza denez. Cantac Berriak / Gaboneraucac / bederatzi egunian cantateco. / Marijesiac / buruz euquiteco direnac (Cantos de Navidad para ser cantados durante nueve días, o sea, Marijeses que ha de saberse de memoria).

1951n, Gaubekak moldatutako liburuska argitaratu zen: Villancicos de Navidad (en vascuence), como se cantan en Guernica y sus alrededores. Gabonetarako Kantak, Gernika-n eta albo-errietan kantetan diran lez.

Jose Miguel Barandiaranek zuzentzen zuen Anuario de Eusko Folklore aldizkarian, 1922ko eta 1933ko aleetan, herri eta auzo askotan batutako kantuak datozi. Aipamen horiek iturri ezin hobeak dira honen gaineko informazioa osotze-ko.

Jose Antonio Arana Martijak ikertu izan du gehien gai hau, eta berak aurkitu zituen 2008an 16 kopla ordura arte ezezagunak, Gernikako mairiesiek euren errepertoriara gehitu dituztenak.

Gerora bibliografia asko ugaritu da, dela monografietan egin diren azterketen bidez, dela bestelako testu-bilduma edo antologietan jaso diren lekukotasunen bitartez. Aipamen berezia merezi dute Ean eta Gernikan egindako azterlanek, herriko jendearengandik irten direlako, euren esperientzian oinarrituta, eta euren zaletasun handiak bultzatuta. Lanok oso garrantzitsuak dira gure ohiturak eta ondarea ezagutzeko, zabalzeko eta transmisioari eusteko.

Alde batetik, Ean, Asier Madarietak liburua egin zuen 2008an, Kantau edo erreza: Eako abendua izenarekin, hango usadioaren berri zehatza emanez, argazkiak eta guzti. Horrez gainera, herriko kaleetan lurrean, txapetan idatzita, jarri dituzte Abenduko koplak. Txapak zenbatuta daudenez, zenbakie jarraiturik abendu nesk-a-mutilek egiten duten ibilbidea osotu daiteke,

ibilian-ibilian kantu-koplak irakurriaz.

Gernikan azkeneko urteetan kantari-taldea ugariatu egin da, gero eta jende gehiago ateratzen da kantuau, tartean jende gaztea gainera. Aipatzeko da, lehen gizonezkoak baino irteten ez ziren arren, orain andrazkoak ere gero eta gehiago direla. Emakumeen presentzia asko indartu da gizartearren arlo guztietañ, eta aldaketa horrek, nahiz eta astiroago joan, bere eragina du herri tradizioko ohituretan ere. Hainbesteaino ezen, 2020an neska batek egin baitzuen bakarlarri lehenengoaz.

Gaur egun marijesiak identitate edo nortasun adierazle direla esan daiteke gernikarrentzat. Hala jaso zuen bere ikerlanean Daniel Rementeria Arruzak, Eusko Ikaskuntzaren Cuadernos de folklore sailean 2013an argitaratu zuen lanean: Performantza eta erritua Gernikako Marijesietan. Identitaterako ahotsak / Performance y rito en los Marijeses de Gernika. Voces para la identidad. Eta hala jaso du Amagoia López de Larruzea Garatek 2019an egindako Marijesiak 4:00: berdeatz gau hotzetañ izeneko lanean (liburua eta bideoa).

Gainerako herrietañ ere, indar gehiago edo gutxiagorekin, baina bakoitzak bereari eusten dio. Labayru Fundazioko Igone Etxebarriak eta Akaitze Kamiruagak 2014an lan bikoitza prestatu genuen gaiañen inguruau. Ohitura bizirik dañoen herrietañ grabazioak egin, lekukotasunak batu, eta bibliografia aztertuta, liburua eta bideo-dokumentala egin genuen, Marijesiak Abenduko koplak izenburuarekin.

Orduan hasi ziren abendu-kantariak elkartzen ere, Gabon aurretxoan, kantaldi bat egiteko deñek batera. Talde bakoitzak bere herriko adierazpena erakutsiz, ikuskizun ederra antolatu izan dute urte birik behin, bakoitzean herri batean.

KANTUA

Marijesi edo Abenduko kantuau koplak kantzen dira, kopla sortak hobeto esanda. Koplak lau bertso-lerroko estrofak dira, eta elkarren on-

doan edo jarraian joan arren, batzuetan elkarren arteko lotura ez da hain argia. Marijesietan hari narratibo bat dago, baina ez da kontaera osoa garatzen. Kontakizuna, batzuetan ebakita agertzen da, hutsuneak daude eta ez dator orden kronologikoan. Berdintsu gertatzen da beste kasu batzuetan ere, gogoratu, adibidez, santedatan kantatzen direnak, edo Urkiolako San Antoniorenak.

Kasu honetan ezaugarri bereizgarriena da, kopla bakoitzaren ostean, estribilloa esaten dela, kantuari errepika kutsua emanet.

Aldaera batetik bestera, gorabehera handiak daude luzeran eta kopla-sorten banaketan. Bilduma luzeenetan, hau da, osoenetan, hiru kopla sorta daude, bakoitza bere doinu eta lelo apartekoarekin. Lehenengoan hasiera hau da ohikoeña:

Abendu santu honetan / Kristoren jaiotzea, / kontentuaren handiz / guztiok poz gaitean. / Maria, Jose, Jesus, Maria.

Guk batu ditugun aldaeretan estribilloaren amaiera gehienetan antzekoa da, baina ez guztiz berdina, herri bakoitzak berea mantentzen dueilarik. Hona hemen horren adibide batzuk: "Maria, Jose, Jesus, Maria" (Gernika); "Maria, Jose, Jesus, Maria, Jose" (Mendata); "Maria, Jesus, Jesus, Maria, Maria, Jesus" (Lekeitio); "Maria y Jose, Jesus, Maria, Abe Maria, Amen, Amen Jesus" (Munitibar); "Maria, Jose, Jesus, Mari, Jose" (Abadiño, Iurreta); "Maria, Jose, Jose, Maria" (Ea); eta "Maria, Jose, Jose, Maria" (Arrieta).

Koplotan abendu santuko poza goratzen da hasiera-hasieratik, eta horren zergatia ere agearian jartzen da: Kristoren jaiotza. Hortik aurrera, Jesukristoren aurrekariak azaltzen dira, Testamentu Zaharreko pasarteen bitartez: Paradisuan Jainkoak Adan sortu; horrek paradisuan bekatu egin; linboan egon bost mila urtean; Trinitateak erabaki aingerua bidali behar zela Adanen bekutua garbitzera; Mariaren garbitasuna; Trinitateko bigarren pertsona sortu, Espiritu Santuak konzeptibitua; San Gabriel aingerua mandatari; Jesu-

sen jaiotza; Hiru Errege Magoak umea adoratze-ra joan opariekin; Herodesek Erregeak beregana joatea nahi baina haien joan ez Kristoren jaiotzea damu zuelako...

Bigarren kopla sortan beste estribillo hau egiten da:

Jesukristo, / iay! qué bonito buen Niño, / ijesukristo!/ Jesukristo, / adoratzen zaitut, / Jesukristol” (Gernika, Munitibar).
 Jesukristo, / ay qué bonito niño, / Jesukristo! (Arrieta).
 Jesukristo, / ai ze ume polite, / Jesukristo! (Ea, Ibarrangelu, Gautegiz Arteaga).
 Jesukristo, / ai ze polit ederra dan, / Jesukristo! (Mendata).

Bigarren atal honetan Jesusen jaiotzaren gaineko zehaztasunak ematen dira: aingeruek artzainei deia egin eta haien Jesusen jaiotzaren berri eman, Jose eta Maria aukeratuak Jesusen guraso izateko, San Gabriel aingeruaren bisita Mariari, Jose eta Maria Belenerima joan, ostatua aurkitu ezinik txabola batean geratu, umea jaio abere artean, hotz handia umearrentzat, ume pobrea arroparik gabekoa baina aberatsa zeruan, gurasoek Jesus gurtu Jaungoikoaren semea delako, etab.

Tarte honetan dago belauniko abesten den estrofa hau:

Sakramentu santu jauna / celebradu zanian / izena ipini eutsien / Jesus salbadoria.
 Jesukristo, ai ze ume polita, / Jesukristo. (Ea, Gernika, Ibarrangelu, Munitibar).

Belaunikatuta leku jakin batzuetan baino ez da abesten. Ean, kasurako, elizen aurrean eta Kurtziotxuko altarearen aurrean geratzen dira belauniko, eta han estrofa hori kantatu. Gernikan, kantetan hasten direnean, Andre Mari elizaren aurrean; bonbardeoa gogoratzan duten lekuetan, eta marijesi zaharren etxeen parean.

Hirugarren kopla sorta azkeneko egunean, Gabon-egunean, bakarrik abesten da. Ordurako umea jaiota dago eta askoz erritmo alaiagoan

kantatzen dute. Etribilloa hauxe da:

Ta bart/bai Belenen, / ta bart/bai Belenen, / jaio da Jesus Nazaren.

Kantua honetara hasten da gehienetan:

Hogeta laugarrena / dogu abenduan, / de-seo genduana / logradu genduan.
 Bai Belenen, / eta bart Belenen / jaio da Jesus Nazaren.
 Gaueko hamabiak / jo daben orduan / gure Salbadorea / jaio da munduan.
 Bai Belenen...

Atal honetan dagoeneko Jesus jaiota dago, eta horren berri ematen da poza eta alaitasuna nagusi dela: Jesus jaio da, ama pozarren dago, artzainak poza zabaltzen doaz, “korraletako ardiak bere jantzan ebilan orduan”, “mundu guztia dago gaur pozez beterik”.

Amaitzeko, Jesus gu salbatzera etorri izana es-kertzen da Mendiolako (Abadiño) eta Oromiñoko (urreta) aldaeretan:

Zorionean Jesus / zu jaio zinian / bestela zeruetan / sartzen ez ginian. (Mendiola, Oromiño).
 Gu salbatzeko gizon / egin zariela / gloriaz go-zatzeko / zeruetan. Amen. (Oromiño).



Ean Kurtziotxuko aldarearen aurrean. 2012

OHAR ESTILISTIKO BATZUK

Estrabilloa: Beste eske-erronda batzuen aldean, Marijesietan estrabilloa errepikatzen da kopla bakoitzaren ostean, hori da ezaugarri berezie- netako bat. Dela bederatzi eguneko erronda, dela egun batekoa; dela kantuak bereizita, dela kantu bakarra; beti dago bakarlarria/taldea jokoa. Bakarlariak egiten ditu estrofak eta taldeak, koru antzera, estrabilloa errepikatzen du. Horrek kan- tuari batasuna edo osotasuna ematen dio.

Beste eske-erronda batzuetan –santagedatan, Eguen Zuri egunez edo Olentzerotan, kasu- rako–, ez da halakorik egoten, normalena izaten da kopla sorta luzeago edo laburragoak jarraian abestea.

Hari narratiboa: Marijesiak edo Abendua kantu- tuan istorio bat kontatzen da, Jesusen etorrera iragarri zenetik eta bera jaio artekoia. Esan daite- ke kantu narratiboa dela. Egia da, bestalde, kopla gehiago edo gutxiago abestu, haria jarraitzea ez dela beti erraza, baina sorta osotu ahala, ar- gumentua egon badagoela ikusten da.

Gure ahozko literaturan, baladetan ikusten dugu

narratibotasun hori; gainerako generoetan, oste- ra, nekezagoa da ezaugarri hori aurkitzea. Santa Agedaren omenezko kopletan, batzuetan azal- tzen da haren bizitzako berri solteren bat, baina estrofa gehienak etxeako koplatzeko eta eskea egiteko kantatzen dira. Eta bestelako kopla zaha- rrak, eman dezagun Urkiolako San Antoniorenak, elkarrekin loturak gabekoak izaten dira.

Koplak: Forma aldetik esan daiteke Marijesie- takoak kopla zaharren antzekoak direla, hau da, lau bertso-lerro eta errima birekin osatuak, puntu bikoak dira. Horixe berori ere ez da beti horrela gertatzen, baina orokorrean, estrabilloen egitura kenduta, molde horretara dator. Errimari ez zaio askorik erreparatzen, hoskidetasuna edo antzeko soinua izatea da gehien bat lortu nahi dena, beste helburu estetiko-estilistikorik gabe.

Eske-errondetako ohiko edukiak: Eske-kopletan behin eta berriro errepikatzen dira osagai batzuk. Bata da etxeako koplatzea, hau da, etxe- koei banan-banan kopla bat eskaintza (etxe- jaunari, etxe-koandareari, semeari, alabari...) eta euren ezaugarri onak goraiapetza. Beste bat da eskaria bera, arrautza-txorizoak edo borondatea eskatzea. Eta hirugarren bat txarto esanak bar- katzea esatea. Dena den, amaitzeko, etxeko- en



Ariatza (Muxika). 2012

borondatearen araberako koplak ere egoten dira, batzuetan haien zekeneriari barre egiteko, edo eskuzabaltasuna eskertzeko.

Mariesien kasuan, berez ez da eske-erronda ohiko bat, baina arestian aipatutako ezaugarri batzuk aurkitu izan ditugu aldaeren arabera.

Txarto esanak barkatu:

Hemen esan badogu / berbarik deungaro,
/ Eleiza Ama Santeari / parka eske naiago.
(Gernika).

Eskea:

Bederatzi gau hotzetan / ibili gara kantetan;
/ emoten badozu limosnatxu bat, / sartuko
dogu poltsetan. (Ea).
Gehiago kantatzeko / laburtu jat arnasea,
/ andrea, eman eidazu / opil edo lukainkea.
(Lekeitio).

Emoizu emongo badozu, / emongoizu nahi
badozu, / haizea be hotza dago ta, / laguna
be urritxu. / Abe Maria...
Hemen ez badago ezer, / goazen beste
batera, / Jaungoikoa dagoan lekuau / ezer
ez da falta. / Abe Maria...
Zeure emokaiagaitik / eskerrik asko, Jaunak,
/ ta Gabon zoriontsuak / bemoskula
Jaungoikuak. / Abe Maria... (Bermeo).

HIZKUNTZA ARLOKO EZAUGARRI BATZUK

Aterpea edo estalpea esateko eskepe agertzen da: "Eskepe etxetu baten / dagoz atea joten,
/ gizona bentanara / txito nekez urtetan" (Gernika).

Ama esateko amea erabiltzen da aldaera batzuetan, artikulu eta guzti: "Ameak hartu eban / semia besoetan" (Legutio). Berdin gertatzen da ume jaioberria adierazteko: "Seina bilozik dago / lur hotzaren ganean, / amea belauniko / negarrez aurrean" (Gernika).

Aldaera gehien-gehienetan esaten da "deseo genduena logradu genduan", Mendatan, ostera, "jaretsi genduan" abesten dute.

Beste alde batetik, testuotan erromantzetik har tutako hainbat mailegu daude, batzuetan, esa nahiaaren aldetik beharrizan handirik gabekoak gainera, ikusi batean: infantea, ajuntadu, espartadu, preziosoa, manifestadu, formadu, paradisu eternalian, esposoa ta espousea, debozinoa, Kosepe ditxosoa...

Deklinabidean, Bizkaiko ablatibo zaharraren ezaugarri den -ean atzizkia ageri da:

Birjinak hartu eban / semea magalean, / Josepe Santuari / eutsela eskurean (eskutik). (Larrabetzu).
Linborean (linbotik) egozan deiez / bost mila urtean, / jauna zerutik lurrera / jaitsi zeitean. (Gernika).

Aditzean badira gaur egun ahozko erabileran nekez entzuten ditugun aditz-formak. Hauetariko adizkiak ageri dira:

Jaitsi da zerutikan / lurrera mensajea: / Gloria in excelsis Deo / munduan biz bakea. (Larrabetzu): munduan izan bedi bakea.
Herodesek esan eutsen / erregeari gabean, / hemendik zetozela, / ni bere joan neitean. (Gernika):hemendik eterri zitezela.
Kontentuaren handiz / guztiok poz gaitean. (Gernika, 1919): guztiok poz gaitezen.
Belenengo portalera / heldu ziranean, / hango zaldieren hotsak / espantadu zeukan. (Gernika, 1919): ikaratu zuela zirudien.
Eleiz Ama santeari / parka eske naiago. (Gernika, 1919): parka eske nagokio.
Josepe Santuari / eutsela eskurean. (Larrabetzu): eutsi aditzaren forma sintetikoa da.
Sua daigun / eta berotu gaitean. (Larrabetzu): sua egin dezagun.

Testuak bizkaieraz egon arren, gipuzkerako formaren bat edo beste ere bada: "Txit egun ditxosoa / dogu Egun-barria, / zegaitikan dan Jesus / gugana eterria" (Gernika)."Linboan egon ziran deiez / bost mila urtean, / Jauna, jatsi zakiguz / zeru alturikan" (Arrieta).

Hizkuntzaren adierazkortasuneko deigarri egiten da txikigarrien erabilera, batez ere aldaera gehienetan txikigarriok pasarte jakin batzuei lotuta agertzen direlako. Jose eta Maria, umea

jaiotzeko dagoela, aterpe apal eta pobre batean sartzen dira. Kontestu horretan adibide hauek aurkitu ditugu: "sutxu bat egiten hasi", "kortatxu bazterrian", "etxetxu zartxu honetan".

Zahar kutsuko beste ezaugarri batzuk ere aurkitu ditugu, herri literaturan sarri ikusten direnak. Adibidez, berez izenlagun direnak adjektibo kategorian agertzen dira. Hau da, 'diamanteko atea' barik, 'ate diamantezkoak'; 'izarreko bentanak' egituraren ordez, "bentana izarrekoak"...

Ireki dira zeruan / ate diamantezkoak / eta harekin batera / bentana izarrekoak
(Arrieta).

Beste horrenbeste gertatzen da izenordain possesioekin, izenaren ostean agertzea zahar itxurako egitura da:

Josepek dirautso / Maria Birjineari, / nok deklaratuko daben / esperantza geureori (Gernika).

Ostatuaren itandu egiturea, ostattuagaitik galdetzea esan gura du kasu honetan, eta horrek ere zahar kutsu agerikoa dauka:

Biak Belenerima / dira zuzendu, / hara heldu ziranean / ostattuaren itandu (Munitibar).

LITERATUR IRUDI BATZUK

Gure herri literaturako kopla zaharretan, sarritan lehenengo bertso-lerro bietan naturarekin zerikusia duen ideia abstraktu bat azaltzen da. Eta bigarren bertso-lerroetan, ostera, hariari lotutako beste ideia bat, itxura batean aurrekoarekin loturak ez duena. Arestian esan dugu Marijesietan hari narratibo bat dagoela, eta horegatik beharbada, ez dugu halako kasu askorik aurkitu, baina bai lantzean behin. Hurrengo adibidean, kasurako.

Eguzki dibinala / gaubaren-gaberdi, / etorri zan mundura / gizonaren antzian (Gernika).

Eguzki dibinala irudi berezia da, eguzkia zeruan dagoelako, baina zero fisikoan. Hau, ordea, dibinala da, Jainkoari lotutakoa. Beste alde batean, eguzkia gauaren gauerdian? Kontraesana da berez, gauerdian eguzkia agertzea. Baina horrek egiten du eguzki hori dibinala izatea.

Eta sarrera horren ondoren, Jesusen jaiotzaren ideia azaltzen da, guztiz kontestu ezohikoan. Jainkoa mundura etorri zen gizonaren antzean,



Gautegiz-Arteaga, 2008



Gorozika (Muxika). 2008

gizon itxuran.

Gauerdi-gauerdian goizaldeko fenomenoak geratu dira: eguzkia irten da, eta oilarrak kukurruko egin du. “Oilarrak egin dauan / Belenian kukurruko / Kristo jaio zanian / gauerdi gauerdian”. (Bermeo); “Gauerdi gauerdian / sortu da miliarria, / Belenengo estalpean / jaio da eguzkia” (Bermeo).

Bestalde, irudi batzuk konparazio bidez azaltzen dira. Argienetakoak, eta aldaera askotan errepikatzen dena, Mariaren birjintasuna adierazteko era-biltzen dena da: argiak kristala zeharkatzen duen moduan, halaxe Jesus jaio da Mariaren sabletik, haren birjintasunari kalterik egin gabe. Halakoe-tan, lehenengo eta bigarren kopletan ikusten duenaren arabera, nola, bezala... hitzak erabiltzen dira konparazioa egiteko. Hirugarrenean, ostera, ideia biak baita-ren bitartez elkartzen dira.

Eguzkia nola dagoan / kristalaren artetik / semia jaio dala / amaren sabletik (Munitibar).

Kristalian argia / bezela pasatu, / egin-da gero bere / dontzella gelditu (Gernika). Izarrak urtetzen dau / hodeiaren ertzetik / baita bere semiak / amaren sabletik (Lekeitio).

Paralelismoak erabiltzea ere guztiz ohikoa da herri-tradizioko literaturan. Halakoak era askotako berbak edo sintagmak bikoiztuta egiten dira. Batzueta estrofa beraren barruan hitz bat, hasiera bat, edo lerro bat errepikatzen da. Kasurako, hurrengo kopla honetan bigarren eta laugarren bertso-lerroetan egitura bera erabilten da: “Hiru Errege Maguak / hain bide luzian / ostatua hartu eben / hain etxe pobrian” (Gernika, Munitibar, Ea, Arrieta).

Beste batzueta, estrofa bi berdin hasten dira, edo baten amaierako bertso-lerroa hurren-goaren hasieran errepikatzen da:

Erabagi izan zan / Trinidadaltuan, / behar zala bialdu / lurrera aingerua. Behar zala bialdu / lurrera aingerua, / erre-

medijatzeko / Adanen pekatua (Munitibar).

Hurrengo estrofa biak elkarren atzetik dator, eta biak hasten dira modu berean. Horrek koplak entzutean, erritmo berezia eragiten du; esaten dena indartu edo zeozelan azpimarratu egiten da:

Astua eta idia / daukaz aldamenian, / arnasa berotzeko / hoztutene danian.

Astua eta idia / jaten egon zanian / seña eukela / bijaren bitartian (Munitibar).

Jarraian datorren hiru estrofako kopla sortan bertso-lerro biko hasiera errepikatzen da, Hiru Errege Magoen presentziari pisua emanez, eta haien egindako bide luzea markatuz. Horrek, beste alde batetik, koplak buruz ikasten ere laguntzen du, eta hori ahoz ahoko transmisioan oso garrantzitsua da.

Hiru Errege Maguak / hain bide luzian / mireni hain haundiz / alkartu zirian.

Hiru Errege Maguak / hain bide luzian / bakotxak eroiela / beren presentiak.

Hiru Errege Maguak / hain bide luzian / ostatua hartu eben / hain etxe pobrian. (Arrieta, Gernika, Munitibar).

Elkarrizketa honetan, ostera, galdera biak parekoak dira:

–Nor, eta nor bizi da / etxetxu zahar horretan?

–Nor eta zer gura zenduke / Jaunaren ordu horretan? (Arrieta, Gernika, Ibarrangelu, Munitibar).

Paralelismoen moduan, kontrako esanahia adierazten duten hitzak eta esaldiak ere, ohikoak izaten dira irudien indarra azpimarratzeko. Marijiesien kasuan adibide batzuk argi-argiak dira.

Semea ta dontzeila / zelan izan leike? (Legutio).

Bilozik bazagoz bere / etzara zu pobria / zeruan josirk dago / zuretzako erropia (Arrieta, Gernika, Munitibar).

Lurrean biluzik eta arroparik gabe egon arren, Jesus ume jaioberria ez da pobrea, zeruan dago josita harentzako arropa. Estrofa berean, hiru ideia desberdin markatzen dira: lurra/zerua, biluzik/arropa, pobrea/aberatsa.

Antzeko esanahia hartzen dute umea babesten duten animaliek. Gau hotza ere hotza da Jesus jaio orduan:

Jesus Dibino gauaren hotza / jausten da iñetasije / ordutxu bijan holan ezkerro / hilida ganadu guztiek (Gautegiz-Arteaga).

Belengo portalian / lasto biren gorian / hotzagaz ikaraz dago / jaio dan infantia (Lekeitio).

Baina hotza eta eguraldi txarra gorabehera, Jesus umeak badauka nork berotu; ondoan dituen asto-idiek euren arnasaren bitartez berotu eta babestuko dute:

Astoak arrantzia, / idiak arnasia, / halan berotzen eben / jaio dan infantia (Busturia, Iurreta, Munitibar).

Asto ta idia / dekoz aldamenian / arnasaz betetzeko / hotzitzeten danian (Abadiño).

Kontraposizio horien bitartez, Jesusen irudia markatu eta nabarmendu egiten da, haren indarra, aberastasuna, poztasuna, berotasuna... zerukoak dira, urezkoak eta zilarrezkoak, goitiko indarrak dakartzatenak.

ONDORIOAK

